



## "Munduko lanik onena daukat"

Mendia eta sukaldaritza, bere pasio handienetako biak uztartzen asmatu du Zigor Iturrietak. Chiloe izeneko telebista programa da horren adibide. Munduko lanik onena dela dio. "Dohainik egingo nuke". Orain, mendiko lasterketatik erretiratuta dago, lehen planotik behinik behin, baina inoiz baino aktiboago dabil sukalde kontuetan, 'Txorieneko lau urtarok' liburu berria barne. Durangoko Azokan eskuragarri egongo da. • 2-3

LEHIORELOIRIAGA

## Gertu, prest, orain! Euskaraldia martxan da

**Durangaldea** | Abian da Euskaraldia Euskal Herri osoan, baita Durangaldean ere. Euskal Herrian 196.000 lagunek eman dute izena dagoeneko. Durangaldean 8.700 parte-hartzailetik gora izango dira. Gaurko, hasiera ekitaldi ugari antolatuta dituzte eskualdeko hainbat herritan. Milaka ahobizi eta belarriprestek hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen ekimenean parte hartuko dute.

• 4. orrialdea



## Pentsiodunek manifestazioa egingo dute Durangon, gaur

**Durangaldea** | Pentsio duinen aldeko manifestaziora deitu dute Durangon, gaurko. Durangaldeko pentsiodunek hamar hilabete daramatzate astelehenero protestak egiten. Oraingoan pauso bat gehiago eman gura dute. Manifestazioa 18:00etan hasiko da, Andra Marian. 6. orrialdea

## Aniztasunaren azoka izango DA

**Durango** | 53. Durangoko Azoka ate-joka dabil. Edizio honetan aniztasunaren plaza izan gura du azokak; ukitu eta sentitu ahal dena. Abenduaren 5etik 9ra bitartean, 200 kultur ekitalditik gora eta 439 nobedade hartuko dituzte azoka osatzen duten zortzi guneeek. Bestalde, lehendabiziko Sormen Bekaren irabazlea nor izango den jakinaraziko dute abenduaren 6an egingo den ekitaldian. 17. orrialdea



LEHIOR ELORRIAGA



**Zigor Iturrieta Ruiz**  
Korrikalari ohia eta sukaldaria.  
Zornotza - Euba | 1974

## “Proba luzeak erronka bat dira; azkenak eta aurrenekoak poz aurpegi berdineguz helmugaratzen direla ikusten dut”

Mendiko lasterketen exigentziatik irtenda, inoiz baino aktiboago dabil ogibide duen sukaldaritzan, liburu berri bat barne

**KORRIKA** • JOSEBA DERTEANO

**Aurrerantzean, Zigor Iturrietak gura duenean aterako ditu mendiko zapatilak armairutik, eta ez agendak agintzen dionean. Zurrunbiloaren erditik albo batera egin du, mendiaz beste modu batera gozatze-ko. Ogibide duen sukaldaritzagaz, ostera, jo eta su dabil. Chiloe eta Txorieneko progametan ikusi dezakegu, eta baita liburu berri bateko azalean ere.**

**Labetik atera berri duzu 'Txorieneko lau urtaroak' liburu. Zerk bereizten du sukaldaritzari buruzko gainerakoetatik?**

Hainbat osagai desberdin ditu. Alde batetik, errezetak urtaroka banatuta daude eta urtaro bakoitzean egoten diren produktuekin lotuta daude. Gainera, errezeta bakoitzak aurpegi bat du, programara etortzeko gonbidatuarena, hain zuzen. Beste berezitasun bat da errezetek

QR kodigoak dituztela eta deskargatu egin daitezkeela, errezetari dagokion programa zatia ikusteko. Durangoko Azokan salgai egongo da. Abenduaren 6an, egunean, aurkezpena egingo dugu eta hantxe egongo naiz.

**Zure aitari zor diozu sukaldaritzarako pasioa?**

Baietz esango nuke. Txikitatik etxean bizi izan dudana zerbait da. Aita kazetaria zen, eta gastronomia zale amorratua. Txapelketa gastronomiko guztietan burua sartuta zuen. Bilboko konpartzagaz batera 'Bacalao de Bilbao' liburu kaleratu zuen eta hamaika kontu gehiago. Sukaldaritzaren inguruko 500 bat liburu ditut etxean, aitarenak. 'Txorieneko noiz arte iraungo du?', galde-tu izan didatenean 'Goazen saioko gazteak jubilatuta arteko errezetak ditut', erantzuten ditut.

**Mendirako afizioa nondik datorkizu? Txikitik nahiko berezia nintzen.**

Kurutziagan ikasten nuen eta mendira joaten nintzen, bakarrik, Momotxo ingurura. Euban ere nire jolasak basoan ziren beti. Belatxikieta ingurura joan eta han orduak ematen nituen. Pentsatu: gure oporretako egun batzuk Mugarri-

“**Txikitik nahiko berezia nintzen. Kurutziagan ikasten nuen eta mendira joaten nintzen, Momotxo ingurura**”

■

“**Lehia gustatzen zait, baina ez dut horretarako behar den prestakuntzaren falta sumatuko**”

■

kolandan ematen genituen. Han sua egin, afaldu, lo egin... Guretzat Alpeetara joatea modukoa zen. Txikitatik mendiaz lotuta nago.

**Abutzu amaieran agur esan zenion korrikalari ibilbideari. Su txikitik koinatzen zeneukan asmoa zen?**

Pare bat urtean buruan neukan zerbait zen, beste gauza batzuk egiteko denbora kentzen zidalako. **Mont Blanc-eko ultra trailean izan zen. Iker Carrerak ere proba hori aukeratu zuen bere ibilbideari amaiera emateko eta elkarregaz ibili zineten. Zelan sortu den ideia hori?**

Nire ideia zen eta kopiatu egin zidan. Maiatzetik erabakita geneukan proba elkarregaz egitea. Pentsatu nuen aukera ederra zela agurrerako: urteetan aurkari izan dudana eta asko miresten dudana korrikalariagaz batera, eta ni ezagun egin ninduen lasterketan. Irratian elkarrizketatu gintuzten batean, primizia bota nuen. Iker isilik gera-

tu zela sumatu nuen. Ostean, telefonoz deitu, eta hilabete batzuetan berak ere hori zerabilela buruan esan zidan. Uzteko kontua zuela aitortu zidan. Horrela sortu zen.

**Lesioen ondorioz, ezin izan zenuten proba amaitu. Pentsatu duzue beste erronkaren bat prestatzea behar den moduko agurra egiteko?**

Zenbat bider entzun dudana hori! Denei berdina erantzuten diet: Messik futbola uzten duenean, bere azken partidua galtzen badu ere, horixe izango du azkena. Ez diot ez dudala berriro dortsalik jantziko. Chiloe programak jarraitzen du, esaterako. Baina ez dut orain arteko mailan jarraituko: entrenatzaile pertsonal batez, helburuak buruan dituzula eta horretarako prestatu beharregaz. Astean hiru-lau bider korrika egiten jarraitzen dut, baina gura dudanean joaten naiz eta gura dudana denbora tartean.

**Beraz, ez duzu lasterketek dakarten erantzukizunaren falta sumatuko.**

Ez. Lehia gustatzen zait. Bezperako urduritasuna, korrikalarietara berba egitea, lasterketetan sortzen diren estualdiei aurre egitea... hori dena gustuko dut, baina ez dut horretarako behar den prestakuntza guztiaren falta sumatuko. Udan, Ikerregaz egindako azken proba prestatzeko, goizaldeko hiruretan itzartu naiz hainbat bider. Politada, baina sakrifizioa eskatzen du. Lau seme-alaben aita ere banaiz eta

beste kontu batzuetarako denbora gura dut.

**Chiloe aipatu duzu. Programa horretan sukaldaritza eta mendia, zure pasio handienetako bi uztartzea lortu duzu. Lan perfektua daukazu-la esan daiteke?**

Eta gainera kobratu egiten dut! Munduko lanik onena daukat. As-tebeteko bidaietan tokian tokiko gastronomia probatzen dut, hango sukaldariak ezagutzen ditut eta, gainera, lasterketa batean korrika egiteko aukera dut. Hori dena dohainik egingo nuke, baina ez, gainera kobratu egiten dut. Amets bat da. Aurten Japonian hasi gara,

Paraguaira eta Qatarrera joango gara... Bere alde gogorra ere badauka. Lanera goaz eta goizetik gauera bueltaka aritzen gara. Politika eta nekagarria da. Hala ere, Chiloe beste 30 urtean ere jarrai dezala!

“

**Jatun ona naiz. Proba baten ostean hozkailua zabaldu, eta barruan daudenak dardarka hasten dira”**

**Jatun ona zara?**

Nik beti diot: mendian ibiltzeko, jan egin behar da, eta mendian ibili eta gero ere jan beharra dago, errekuaratzeko. Lau-bost orduko lasterketa bat amaitu eta hozkailua zabaltzen dudanean, barruan dauden denak dardarka jartzen dira. Jatun ona naiz eta eskerrak kirola egiten dudana. Bestela, erraz hartuko nituzke kiloak.

**Mendi lasterketak modan daude, eta baita luze-luzeak ere, ultra trail distantziakoak. Zergatik ote da?**

Horrelako lasterketak amaitzea irabaztea da. Gehientzat amaitzea izaten da erronka bakarra.


Lehenengoa zein azkena poz aurpegi berdinean helmugaratzen direla ikusten dut. Kirola modan dago, natura ere bai, eta mendiko lasterketek biak uztartzen dituzte. Hala ere, batzuek burua galdu dutela esango nuke. Lasterketa gehiegi egiten dituzte. Bi-hiru nahikoa izan beharko lirake. Eta beti ere aurretik bide bat eginda. Nik lehenengo ultra traila egin nuenerako, zortzi urte neramatzan korrika, eta 60 kilometroko bat eginda neukan. Gaur egun, korrika hasi eta 100 kilometroko proba batera joaten dira asko. Horregatik ez dituzte amaitzen askok. Kirol berria

da eta denboragaz bakoitza bere tokian utziko gaitu, baina hemen dik hogeitaz beharbada esango dugu: "Zelako astokeriak egiten genituen orduan!"

**Proba luzeetan astindu handiak hartzeak gorputzean arrastoa utzi dezakeela uste duzu?**

Seguru baietz. Medikua den lagun batek esana dit, ultra trail bat amaitu berri duen edonori ospitalean analisi kliniko bat egingo baliote ingesatu egin luketela segituan. 100 kilometroko proba baten ostean, astebete geldid egotea gomen datzen dut eta gero apurka-apurka berriro hastea.

## SALSA GUZTIETAKO KIROLARIA



Europako makina bat eskalada gune bisitatu zituen.

**Klasean baino, eskalatzeko ematen zuen denbora gehiago**

Eskaladan 14 urte eman zituen lehenengo urratsak, baina ostalaritza eskolan zaletu zen, Iñaki Congui eskalatailea ezagutu zuenean. "Klasean baino, denbora gehiago ematen genuen eskalatzeko. Goizetan motxila eskaladarako gauzekin beteta nuela irteten nintzen etxetik", gogoratu du. European zehar ibiltzen zen (Eslovenia, Alemania, Italia, Frantzia...) asteetako abenturetan. "Penintsulako eskalada eskola denak pasatuko genituen. Urte fanatikoak izan genituen".



Zigor Iturrieta ezkerrean, Mugarra Triatloi Taldeko kideekin.

**Triatloien munduko txapelketara sailkatu, eta dirurik ez joateko**

2000. urtean Hernanin bizi zen. Han ez zuen eskaladarako lagunik, eta arrauna probatu zuen sei bat hilabetez. "Ez nuen horretarako gorputzik, baina entrenamenduetako korrika saioetan ondo moldatzen nintzen". Donostiako talde batek duatloiak eta triatloiak probatzea

erabaki zuen eta bi-hiru urtez aritu zen. "Betidanik gustatu zaidan mundua da". Behin Hawaiiin lehiatzen den mendiko triatloien munduko txapelketara sailkatzea lortu zuen, baina ezin izan zen joan. "Ez neukan dirurik horri aurre egiteko. Pena izan zen".



Bere garaipen denetan lortutako txapeletatik bakarra du etxean: Aramotz mendi lasterketako.

**Aramotz mendi lasterketa: lehen garaipena bere "jolas-parkean"**

2006a zen eta Saran zegoen, duatloi bat prestatzen. Hango kartel batean, 'Euskal Herriko mendi lasterketen txapelketa, Beran' irakurri zuen. Parte hartzea erabaki zuen. "Hankapetik egingo nuela pentsatu eta aste bitan hankak minduta izan nituen". Baina zaletu egin zen. Hurrengo urtean Zegama-Aizkorriko txartela lor-

tu eta kontua serio hartu zuen. 2009an bere lehen mendi lasterketa irabazi zuen; non eta etxean, Aramotz mendi lasterketan. "Inguru hura nire jolas-parkea izan da betidanik, Mugarratik Belatxikietara. Emozionantea izan zen, etxeok hantxe zeudelako. Hainbat txapel irabazi ditut, baina horixe da etxean dudana bakarra".

**Munduan ezagun egin zuen proba: Mont Blanc-eko Ultra Traila**

2010ean, parte hartzen zuen lehenengo aldian, hirugarren amaitu zuen Mont Blanc-eko Ultra Traila. Podium horrek munduan ezagun egin zuen Zigor Iturrieta. Lasterketa hasi eta gutxira, geratu egin zuten proba, trumoiagatik. Seigarren zihuan. Hurrengo egunean, hiru postu aurreratu zituen. Hurrengo urtean, Transgrancanaria lasterketa irabazi zuen. "Kanariar Irletan lagun asko egin nituen. Proba egunetan hara noanean, hamar kanariar eta euskaldun bat egoten gara pisu batean. Eurek etxea jartzen dute eta nik kozinatu egiten dut".



Mont Blanc-eko Ultra Trailan hirugarren amaitu zuen.

## Barraskiloreren bosgarren urteurren jaia ospatuko dute zapatu honetan

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Bost urte joan dira Barraskin etxebizitzak okupatu zituztenetik, Barraskilore proiektuari hasiera emanez. Urteurrena ospatzeko, zapaturako jaia antolatuko dute bertan.

Azaro guztian zehar, herriarrei zabalik egon diren hainbat ekintza antolatu dituzte Barraskiloreko bizilagunek. Ekintza hauekin Barraskiloreren proiektua bertatik bertara ezagutzeko gonbita eskaintzen diete herritarrei.

Azaroaren 30ean emanango diete amaiera ekintzei. 20:00etan Barraskiloreko txokoa zabaldu eta pintxoak eskainiko dituzte. Ostean, 21:00etan, *One Dollar: El Precio de la Vida* dokumentala eskainiko dute.



Hamaika egun hauetan ere eman daitezke izena Euskaraldian.

## 11 Egun Euskaraz jarduteko ariketa martxan da Durangaldean

**DURANGALDEA • JONE GUENETXEA**

Gaurtik hasita abenduaren 3ra arte martxan da Euskaraldia. Ariketa sozial honen bidez hizkuntza ohiturak aldatzea da helburua. Ekimenak rol bi proposatzen ditu: belarriprest eta ahobizi. Eguazten arratsaldera arte 8.726 lagun zeuden izena emanda Durangaldean. 6.915 ahobizi eta 1.811 belarriprest. Beraz, parte-hartzaileen

%80 ahobizi izango dira, eta %20 belarriprest. Euskal Herri osoan 196.000 lagunek eman dute izena, eta Bizkaian 68.500ek.

### Hainbat ekitaldi gaurko

Durangaldeko hainbat herritan Euskaraldia abiatzeko ekintzak prestatu dituzte. Atxondon eta Elorrion ekitaldi bana prestatu dute gaur iluntzerako. Zaldibarren kale-

jiran kantuan abiatuko dute Euskaraldia, 19:30ean. Bestalde, azaroaren 29an, San Andres jaietako pregoia eta txupinazoa jaurtiko dute. Zornotzan, mural parte-hartzailea marraztuko dute gaur, 18:00etan. Durangon, hasiera ekitaldian argakia aterako dute, 17:00etan, Ezkurdin. Mañarian kantupoteoa egingo dute eta Abadiñoako Trañamatenan, trikipoteoa.

## Euskaldun berri eta zaharrak batuko ditu Mintzodromoak, azaroaren 28an

**DURANGO • J.G.**

Eskualdeko euskaldun zaharrak eta euskara ikasten dabiltzan euskaldun berriak batuz, Mintzodromoa antolatuko dute azaroaren 28rako Platearena kafe antzokian. Goizez eta arratsalde, saio bikoitza proposatu dute antolatzaileek. 10:00etatik 12:00etara eta 18:30etik 20:30era. Kafesneak eta pastek gozotuko dute mahaiaren bueltan eseritakoekin solasaldia. Parte hartzeko, Durangaldeko eskualtegieta eman beharko da izena, azaroaren 27a baino lehen. Euskaraldiaren bultzada baliatuz, mintzodromo berezia antolatuko dute aurten.




## Everesteko behe kanpalekuan izan da Garaiko alkatea

**GARAI • M.Z. / M.O.**

Durangoko Alpino Tabira menditalko taldeak antolatuta, Everesteko behe kanpalekura espedizioa egin dute, eta partaideen artean Gontzal Sarrigoitia Garaiko alkatea ere egon da. Espedizioa azaroaren 3an hasi zuten eta 19 egun egin dituzte han.

Munduko mendirik altuenerako behe kanpalekura igotzeaz gainera, Renjola Pass (5.340 metro), Thagnag (4.640 metro) eta Chola Pass (5.400 m) ere igotuzte, esate baterako.

	Ahobizi	Belarriprest
<b>Abadiño</b>	562	103
<b>Atxondo</b>	146	45
<b>Berriz</b>	494	136
<b>Durango</b>	2.306	633
<b>Elorrio</b>	997	267
<b>Garai</b>	40	10
<b>Iurreta</b>	289	59
<b>Izurtza</b>	42	8
<b>Mallabia</b>	155	51
<b>Mañaria</b>	62	9
<b>Otxandio</b>	212	56
<b>Zaldibar</b>	318	111
<b>Zornotza</b>	1.292	323



■ %80 Ahobizi  
■ %20 Belarriprest

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko azaroaren 23a  
17. urtea - 743. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasumaga Guezuraga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasoko du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**  
Amankomunazgoko hondakinen gestioan legealdi honetan emandako pausoak azaldu dituzte Lopezek eta Uriartek. Saillkapenean gora egiteko, argi dute organiko osoa batu behar dela.

**Zer pauso eman duzue legealdian organikoaren bilketa indartzeko?**

**Aitor Lopez:** Amankomunazgoko herri guztietara hedatu dugu bosgarren edukiontzia eta autokonpostajearen proiektua. Bestalde, edukiontzi gehiago ipini ditugu. 2017ko neguan beste informazio kanpaina bat egin genuen, baina izen-ematean partaide berri gutxi lortu genuen. Biztanleen %20k birziklatzen dute organikoa, eta uste dugu beste pauso bat ematea beharrezkoa dela.

**Zein da pauso hori?**

**A.L.:** Organiko osoa sailkatu ahal izatea, animalien jatorriko elikagaiak barne, orain ezin baita egin. Baina Aldundiak jartzen ditu baldintzak, eta berak eman behar du pausoa. Inbertsioak egitea eskatzen dugu, aldaketak gertatu ahal izateko. Durangaldean konpostaje planta bat? Primeran. Artigasekoa handitzea? Eurek erabaki behar dute. Guk baldintza guztiak betetzen ditugu: baliabideak ditugu, borondate politikoa... baina egoera honetan, ez atzera ez aurrera gaude. Lea Artibain organiko osoa sailkatzen dute, adibidez.

**Augusto Uriarte:** Amankomunazgoak egin du tokatzen zaiona. Kanpainak, baliabideak... 73 edukiontzi marroi ditugu, eta 400 konpostertatik gora. Edukiontzi marroian bota ahal dena, hortxe dago gakoa.

**Eskaria herritarrena ere bada?**

**A.L.:** Hain justu, organikoari buruzko saioak egin izan ditugunean, ohiko galdera izan da animalien jatorriko gaiak botatzearena. Herritarrek eskatutako zerbait da, eta udalek ere proposatu izan digute. Pausoa emango balitz, egungo

# “Aldundiak organiko osoa onartuko balu, birziklapena asko igoko litzateke”

Amankomunazgoko arduradunek hondakinak sailkatzeko deia egin diete herritarrei, eta bilketa hobetzeko bide horretan hainbat baliabide ipini dituzte herritarren eskura



**Aitor Lopez**  
Amankomunazgoko presidentea  
**Augusto Uriarte**  
Hondakin bilketaren arduraduna

erabiltzaileek materia gehiago sailkatuko lukete eta jende gehiago ere animatuko litzateke proiektuan parte hartzera.

**Beraz, birziklapen kuotan ere eragina edukiko luke.**

**A.U.:**2017an hondakinen %33 sailkatzten genuen Amankomunazgoan. Organiko osoa sailkatuta, errefusa gutxituko litzateke. Horrela, asko

igoko litzateke birziklapena, eta, orduan, Europak 2020rako aholkatzen duen %50eko sailkapen portzentajera helduko ginateteke. Bestalde, Amankomunazgoak eta beste instituzioek baliabideak jarri behar dituzte, baina hondakinak sailkatzea guztion ardura da, herritarrena ere bai.

**A.L.:** Ingurumenerako hobea litzateke, eta ekonomikoki errentagarriagoa ere bai. Errefusa tona bat tratatzeak organikoaren bikoitza kostatzen du. Eta azken hau, gainera, berriro zirkuituan sartzen da. Beraz, Amankomunazgoak eta udalek gutxiago ordainduko lukete.

**Organikoaz aparte, edukiontzi ugari batzen dituzten guneak antolatzea**

izan da zuen beste urrats bat, saka-banatu eduki beharrean.

**A.L.:** Aurreko legealditik, auzoetako gune horiek indartu ziren, eta guk jarraitu dugu. Errefusarako edukiontzia ahalik eta lekurik gutxienetan egotea gura dugu, horrek hondakinak bereiztea zailtzen duelako.

**A.U.:** Iaz paperaren eta beiraren sailkapen protzentajea igo egin zen, eta uste dut gune horiek indartzeagatik izan zela. Azken urteetan 50 edukiontzi berri ipini ditugu urtero, gutxi gorabahera.

**A.L.:** Bestalde, zerbitzuan inbertsioak egin ditugu. Lehen ez zegoen arduradunaren figura, eta administrari bat ere gehitu dugu zerbitzuko lanetara.

“**Bizkaian, biztanleko, Garbigune gutxien duen eskualdea da gurea**”

AITOR LOPEZ

**A.U.:** Orain inzidentziak zenbatu eta jarraipena egiten diegu. Kamioietan mugikorrak ipini ditugu eta, horrela, gertakariez zuzenean informatzen dute kamioietatik. Gainera, tamaina handiko hondakinak batzeko kamioi berri bat erosi dugu, eta ohiko bilketa egiteko beste kamioi bi ere erosi ditugu. **Tamaina handikoak Garbigunean ere utzi ahal dira, ezta?**

**A.L.:** Konturatu gara tamaina handikoen kopurua gero eta handiagoa dela. Bizkaian, biztanleko, Garbigune gutxien duen eskualdea da gurea. Bakarra dugu eskualde osorako, eta herri batzuetan arazoak ditugu, hondakin asko pilatzen direlako kalean. Beraz, Durangaldean beste Garbigune bat jartzea onuragarria litzatekeela uste dugu.

## ORGANIKOA



**- Zer bota:** Barazkiak, fruta, haziak, fruitu lehorrak, zerealak, landare-produktuen hondakinak, ogia, paper-zapiak, infusio-poltsak...

**- Zer ez bota:** Animalien jatorriko janariak, ez kozinatuak ez prestatu gabekoak.

## PAPERA ETA KARTOIA



**- Zer bota:** Egunkariak, folioak, kartoi eta paperezko kaxak, arrautzontziak, paperezko poltsak, koadernoak...

**- Zer ez bota:** Zelofan-papera, aluminio-papera, tetrabrikak, argazkiak, paper termikoa, sukaldako papera...

## ERREFUSA



**- Zer bota:** Gaikako bilketak eragiten ez dien hondakinak dira, eta bilketa zerbitzutik kanpo ez daudenak.

**- Zer ez bota:** Inausketahondarrak, obretako hondakinak, lurrak, enbalajeak, pneumatikoak, bidioiak...

## BEIRA



**- Zer bota:** Botilak, lurrin-ontziak, kosmetikoak, kontserben beirazko ontziak.

**- Zer ez bota:** bonbillak, leihoetako kristalak, ispi-luak, betaurrekoak, pitxerak, edalontziak, portzelanak, zeramika...

## ONTZIAK



**- Zer bota:** Garbiketa produktuak, jogurtak, freskagarriak, aerosolak, kontserbak, tetrabrikak, metalezko eta plastikozko tapoiak...

**- Zer ez bota:** Plastikozko jostailuak, etxetresnak, biberioiak, orraziak, eskuilak...

## BERRERABILGARRIAK



**- Zer bota:** Arropa, zapatak, osagarriak, liburuak, jostailuak, bazar artikulua, gailu elektronikoa eta elektriko txikiak...

**- Zer ez bota:** Platerak, kati-luak, beirazko objektuak, artaziak, labanak...



Martitzenean eskualdeko batzarra egin zuten Durangoko Pinondo Etxean. Horren ostean, ANBOTOGAZ SOLASALDIAN BATU ETA ARGAZKIA ATERA ZUTEN.

## "Pentsiodunok 10 hilabete daramatzagu borrokan, eta lortu ditugun gauzak borrokagatik izan dira"

Gaur Durangaldeko manifestazioa egingo dute pentsiodunek Durango, 18:00etan, Andra Maritik hasita

**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**

Hamar hilabete dira pentsiodunak astelehenero kalera irteten hasi zirenetik, eta oraindik "pentsio duinen" aldeko protestari eusten diote. Gaur beste mugarri bat ipini gura dute Durangaldeko manifestazioagaz. 18:00etan hasiko da, Andra Maritik.

"Pentsiodunok hamar hilabete daramatzagu borrokan, eta lortu ditugun gauzak borrokagatik izan dira", uste du Matias Oregik,

Durangoko pentsiodunen mugimenduko kideak. Pentsioen igoera %0,25ekoa izango zela iragartzean hasi zen gatazka, eta orain, PSOE-ren gobernuak KPIaren arabera

**"Pentsio txiki bat daukagu, eta alarguntasunarena ez digute ordaintzen"**

igotzea berba eman die, urte birako. Lorpen hori ez da betirako, beraz. Eguzkiñe Uriondo iurretarra Magdalena Valerio ministroagaz batzartutako ordezkariatzako kidea da. "Valerik esan zigun eurak ez direla ezertara konprometitzen gerora", gogoratu du. Gobernuak konpromisoak hartzea gura dute, Itziar Madariaga zornotzarrak dioenez. "Pentsioen gaia finkatuta egon behar da etorkizunerako. Ez dadila izan hauteskundeak irabaz-

ten dituen gobernuaren arabera". Gobernuagaz negoziatzeko gura dute, eta, bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak bere aurrekontuetan konpentsatu dezala hutsunea.

Horrez aparte, gutxieneko pentsioa 1.080 eurotan ezarri gura dute, eta alarguntasunarena kontuan hartzea. Hain justu, Uriondo eta Madariaga alargunak dira. "Gu jubilatuta gaudenez, pentsio txiki bat daukagu, eta alarguntasunarena ez digute ordaintzen", esan dute.

## Nekazaritza lurrak zelan antolatu aztertuko dute jardunaldietan



**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Iraunkortasunaren eta jasangarritasunaren alde lan egiten duen Iraunkor Elkartearen helburuetako bat herriko lur baliabideen potentziala aztertzea da. Bide horretan sakontzeko, Lurralde Antolamendua Jorrazten izeneko jardunaldiak antolatu dituzte abenduaren 1eko zapatarako, Etxanoko eskolan.

10:00etan Zornotzarako lur antolamenduaren gaineko irizpide bilduma azalduko dute. Gaia kokatu ostean, 10:45 aldera, saio praktikoa egingo dute luraren erabileraren gainean eta etorkizunean aurrera eraman daitezkeen aukeren inguruan.

Jardunaldiak hitzaldi batez amaituko dituzte. 11:45ean Eneka Quintanak baso ustiapeneraren arloan dauden aukerak azalduko ditu.

## Euskal Herriko hainbat lekutatik ekarritako postuekin beteko da Izurtzako frontoia abenduaren 6ko azokan

San Nikolas eguneko Gaztardogi azokaren harira, Mendigainen dantza saioa eta argazki erakusketa ere egingo dira

**IZURTZA • JOSEBA DERTEANO**

San Nikolas eguna azoka bategaz ospatzen hasi ziren orain zortzi urte eta, harrezkero, Gaztardogi feriari ez du hutsik egin abenduaren 6an. Aurten ere, udalak antolatuta, Euskal Herriko hainbat lekutatik ekarritako postuekin beteko da pilotalekua, 11:00etatik 15:00etara.

Azokaren izenagaz bat eginda, frontoiko luze-zabalean jarriko diren postuetan gazta, ogia eta ardoa ipiniko dituzte salgai hainbat ekoizleek, baina txakolinak, sagardoak, barazkiek, txerrikiak, eztiak, likoreak, loreak, landareak eta pateak ere izango dute lekua.

Azoka beste hainbat ekimenegaz jantziko dute. 11:00etako mezaren ostean, Mendigain dantza taldeak saioa eskainiko du plazan.

Eguerdian, Euskal Labeldun oilasko pintxoak jateko aukera egingo da (euro bian) plazan jarriko duten postuan. Urtero egiten duten legez,

txartelak egingo dira pintxoak eta edaria dastatu ahal izateko. Txartelak udaletxean egingo dira eskuragarri.

Azkenik, jaietako argazki lehiaketara aurkeztutako argazkirik onenekin erakusketa antolatuko dute jubilatuen lokalean.



Eguraldia lagun, azokak jende asko batu zuen iazko aldian.

## Ez dute onartu airearen kalitatearen inguruan Herriaren Eskubideak egindako mozioa

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Durangaldeko airearen kalitateak kezkatuta, Herriaren Eskubidea alderdia mozioak aurkeztu dabil eskualdeko herrietan eta baita Eusko Legebiltzarrean ere. Joan zen astean, Berrizen aurkeztu zuten airearen kalitatearen inguruko mozioa. Eskualdean neurgailu gehiago jartzeko eta herritarrek babesteko protokolo bat eskatzen zituzten, besteak beste.

EH Bilduko zinegotziak mozioaren alde agertu ziren arren, EAJko kideek mozioaren kontra bozkatu zuten, eta onartu barik geratu zen. "Neurgailuak jartzeak ez du esan gura hobeto arnastuko dugunik, baina ondo legoke jakitea zer arnasten dugun", adierazi zuten Herriaren Eskubideko kideek publikotik.

# Eskola eremura eta Olaburu frontoira sartzeko bidea egokitu, eta oinezkoentzat mugatuko dute

Udalarena den Goiuriarako bide zatia eta Amilburuko jolasgunea konpontzeko dirua lotu dute 2019ko udal aurrekontuan



Olaburu inguruan obrak egingo dituzte.

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretak 5,9 milioi euroko aurrekontua izango du 2019an; aurten-goagaz alderatuta, %4,63 igoko da. Inbertsioen atala ere igo da: 841.000 euro lotu dituzte. Besteak beste, eskola eremura eta Olaburu frontoira sartzeko bidea egokitu, eta oinezkoentzat mugatuko dute. Horrez gainera, Amilburuko jolasgunea konponduko dute. 70.000 eta 60.000 euro gorde dituzte lanetarako. Bes-

talde, udalarena den Goiuriako bide zatia (Garaizarko bidegurutzetik hilerrira) konpontzeko, 70.000 euro lotu dituzte. Eta Olaburu tunelean geratzen den horma konpontzeko, 50.000 euroko atala. Baita argiteria aldatzen jarraitzeko eta aurrekontu parte-hartzailea bideratzeko ere. Bizikletak garbitzeko lekua (10.000 euro) ere egokituko dute, eta Etxego atonduko dute (30.000 euro). Berdintasun plana eta gazteentzako

garatzeko, diru gehiago erabiliko du udalak; baita lan eta gizarte inklusioa bultzatzeko egitasmoa ere.

**Iurretak 5,9 milioi euroko aurrekontua izango du 2019an; inbertsioetarako, 841.000 euro lotu dituzte**

Era berean, oinarriko zerbitzuak eta diru-laguntzak mantetzeko diru-atala handitu du: 2,7 milioi euro.

Aho batez onartu dute aurrekontua. EH Bilduren ustean, inbertsio "logiko eta zentzudunak" batu dira, "aurreko urteetako bideari eutsiz". Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, "egoera ekonomiko hobearen isla da aurrekontua. Inbertsio potolorik ez dagoen arren egin beharreko lanak dira".



## Negu sasoirako, aisialdi eskaintza hobea eskatu du Abadiñoeko EH Bilduk

### ABADIÑO • A.M.

Abadiñoan dauden leku estaliei erabilera emateko eskatu dio udalari alderdi independentistak. Izan ere, EH Bilduren berbetan, herritarren artean kezka handia dago eta negua hurbildu ahala erantzun bat topatzea "beharrezkoa" da. "Kezka nabaria da herrian, eta horren erakusle dira udalean herritar talde batek aurkeztu dituen 400 sinadurak", adierazi dute alderdiko ordezkariak. Kezka horri konponbidea ahalik eta bizkorren emateko eskatu diote udalari. "Aukerak badaude: frontoiak, erabilera anitzeko eraikina Matienan, probalekua Zelaian, Muntzaratzeko lokalak...", argitu dute kaleratu duten oharrean.

# Merkataritza txikia suspertzeko, 10 ekintzako merkataritza plana burutuko du Elorrioko Udalak datozen bost urteetan

Komertzioei bultzada eta herritarrei erraztasunak emateko asmoz, herriko zazpi puntutan erosketa karroak jarri dituzte

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken hileetan, merkatarik elkarrearen eta Hiritik At enpresaren laguntzagaz, udala Merkataritza Plana lantzen ibili da herriko merkataritza txikia suspertzeko asmoz. "Hamar ekintza egingarri eta eragingarri planteatzen ditugu merkatarien, EMeren eta batez ere elorriarren mesedetan", jakinarazi du Txus Arrieta zinegotziak.

Hiritik At enpresak landutako diagnosi baten ondorioa da asteon aurkeztu duten merkataritza plana, eta helburua datozen bost urteetan bertan landutako puntuak garatzea izango dela esan dute. "Epe ertainean merkataritza galtzen hasiko dela ikusi dugu, eta funtsezkoa da lan egitea hori bultzatzeko", adierazi du EME elkarteak Aitor Egurennek.

Bestalde, herria ilunetan kanpaina arrakastatsua izan dela nabarmendu dute antolatzaileek. "Merkataritza txikia da herria argitzen duena, eta, beraz, euren lana ezinbestekoa da", esan du Idoia Buruaga alkateak. Horrez gain, astelehe-

**Herritarrei erraztasunak emateko asmoz, herriko zazpi puntutan erosketa karroak jarri dituzte**

netik aurrera herriko 7 puntutan erosketa karroak egongo direla jakitera eman dute. "Karro hauekin erraztasun guztiak ematen dituzte merkatariek. Gainera, herrigune historikoa supermerkatu handi bilakatuko dute", esan du alkateak.



Ezkerretik hasita, Txus Arrieta, Izaskun Agirre, Idoia Buruaga eta Iker Eizagirre.

## Txoko ludikoekin emango diote hasiera Elorrio Osasuntsua dinamikari, domekan

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bigarren urtez jarraian, Elorrio Osasuntsua dinamika jarri dute martxan. Domeka honetan emango diote hasiera ekimenari, txoko ludikoekin. "Ekimen honegaz jardura fisikoa egitea eta Elorrioko kultura bultzatzea gura dugu", adierazi du Endika Muruamendiaraz Athloneko ki-deak. Horrez gain, herritarren artean "ohitura osasuntsuak" bultzatu gura dituztela esan du Dani Palacios zinegotziak.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, zazpi ekintzez egongo da osatuta domeka osasuntsua, eta herritar guztiak parte hartu ahal izango dute. Horrez gainera, Elorrio Osasuntsua ekimenaren barruan eskola kirola eta kirol astea ere sartzen direla esan dute.

# Orain 12 urte martxan ipini zenetik, Jesuiten Etxean 58 etorkini eman dizkiete aterpetxea eta laguntza

Juan Carlos Irizarren kontzertua antolatu dute biharko, Durangoko Jesuiten Etxea proiektuaren alde dirua lortzeko

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Juan Carlos Irizar musikari ezagunak kontzertu solidario bat eskainiko du bihar Durangon, Jesuiten Etxearen alde. Orain 12 urte ipini zuten martxan jesuitek proiektu hori, laguntzarik bako etorkinei aterpea eta laguntza emateko asmoz. Ordutik, 58 migratzaile jaso eta euren gizarteratzea sustatu dute. "Gure funtsa eurei harrera egitea eta gizarteratzen laguntzea da. Horretarako, garrantzi izugarria ematen diegu ikasteari eta formakuntzari", azaldu du Koldo Katxo jesuitak.

Batez ere arrazoi ekonomiko eta sozialek bultzatuta etorritako pertsonak dira Jesuiten Etxean hartu dituztenak, gehienak Saharaz Hegoaldeko Afrikatik heldutakoak. Katxoren esanetan, baliabiderik barik egoten dira, "ez dute nora jo edukitzen". Urtebetez Jesuiten Etxean ematen diete aterpe, eta beste urtebetez alokairuan hartuta duten pisu batean. Etxean lau lagun egoten dira bizitzen gehienez, eta alokatutako pisuan, hiru.



Etorkinak gure kulturara batzeko saiakera egiten dute jesuitetakoek. Irudian, iaz eginiko jai bat.

Bertako gizartean eta kulturaren murgiltzen eta lanerako prestatzen laguntzen diete, Katxok dioenez. Esaterako, Sartu-Zabaltzen enpresa ikastaroetan parte hartzen dute, eta pertsona nagusien eskolan ikasi. Gainera, gaztelaniaren oinarriak irakasten dizkiete jubitutako irakasle sare baten bidez.

**Jesuiten Etxean lau lagun egoten dira bizitzen gehienez, eta alokatutako pisuan hiru**

**Disko aurkezpena**

Proiektua laguntza pribatuei esker finantzatzen dute, eta bide horretan kokatzen da biharko kontzertua ere. Emanaldirako sarrerak bost euro balioko du. Irizarrek *Pedaleando* izeneko diskoa aurkeztuko du, txirindulari ezagunengan oinarritutakoa; bere diskografia marduleko berriena da. 19:00etan hasiko da kontzertua, Jesuitetako Arrupe aretoan.

**Urteurrena ospatzeko, animalia formako ogiak zozkatzen dabilta Hontza Museoa**

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Lau urte joan dira Hontza Museoak ateak zabaldu zituenetik. Urteurrena ospatzeko, azaroko asteburuetan natur zientzien museoa bisitatzen dutenen artean zozketak egiten dabilta. Durangoko Ogien Artean okindegiaren laguntza izaten ari dira horretarako. Okindegiak animalia formako ogiak egiten ditu zozketako irabazleen artean banatzeko.

Zozketa domeketan egiten dute, museoan bertan, eta irabazleak Ogien Artean okindegi hartu dezake bere saria. "Ekintza honen bidez, museoa bisitatzen duten guztiei esker errak eman gura dizkiegu", azaldu dute museoko arduradunek ohar batean.

**Praderaren 'Mallabiko Ama' kantuagaz hasiko dute Santa Zeziliako kontzertua**

**MALLABIA • J.D.**

Santa Zezilia eguna ospatzeko, kontzertua egingo dute zapatuan, 20:00etan, elizan. Aurten Emilio Praderak sortutako *Mallabiko Ama* kantuagaz hasiko dute kontzertua. Praderak berak joko du organoa eta denen artean abestuko dute. Ondoren, ohiko kontzertua hasiko da Jasokunde, Mendibil eta Lagun Arte koruekin eta Eibarko akordeoi taldeagaz, besteak beste. Gero, gaztainerrea egongo da denentzat, elizpean.

## 'Guk, Durango' kanpainagaz denda txikien garrantzia nabarmenduko dute kaleetan

Dendariek eta udalak elkarregaz hasi dute kanpaina



Hainbat merkatarik egon ziren atzo udaletxean eginiko aurkezpenean.

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Tokiko merkataritza sustatzeko, kanpaina komunikatiboa garatuko dute datorren hilabeteen Dendak Bai elkarteak eta udalak, *Guk, Durango* izenekoa. Aitziber Irigoras alkateak azaldu du "sentsibilizazio lan indartsu" bat egin gura dutela,

herritarrak erosketak herrian bertan egitera eta bertako zerbitzuak erabiltzera animatzeko.

Horrez aparte, merkataritza txikiak herrian duen garrantzia nabarmendu gura dute, "hemen duguna baloratzea", Alex Palacios elkarte presidentearen esane-

tan. Hori erakusteko, azpimarratu du 1.500 eta 2.000 lanpostu zuzen ematen dituela sektoreak Durangon, eta zeharkakoak askoz gehiago direla. Durangon 600 bat saltoki daude, horietatik %65 dendak, eta ia %20 taberna edo jatetxeak.

Dendak Bai elkartetik aparte komertzio eta eragileei ere *Guk, Durango* kanpainagaz bat egiteko gonbitea egin diete.

**'Black Friday' eguna**

Bestalde, Dendak bai elkarteak sustatuta, Durangoko 60 komertzioekin egiten dute bat gaurko *Black Friday* ekimenagaz. Egunean zehar bakoitzak bere deskontu eta promozioak izango ditu eskuragarri. Deneriko sektoreetako dendak dira partaide: nagusientzako zein umeentzako moda, oinetakoak, kirolak, paper dendak, kosmetika, elikadura... Egun honetarako diseinatutako kartelekin eta sarreran ipiniko dituzten alfonbra batez bereiziko dira partaide diren dendak.

Dendariek eskaintako deskontuez gainera, 20 euroko balioa duten 100 deskontu txartelen zozketa egingo dute erosketak egiten dituzten bezero guztien artean.

Bestalde, Dendak Bai elkarteak adierazi dute komertzioetan telazko poltsak ere doan danatuko dituztela opari lez, guztiak agortu bitartean.

**Conama saria irabazi du udalak, eta proiektua burutzea eskatu du EH Bilduk**

**DURANGO • M.O.**

Estatuko ingurumenaren Conama sarietan bigarren postua lortu du Durangok, 5.000 eta 30.000 biztanle arteko mailan. Eraikin publikoetan eta etxebizitzetan energia berriztagarrien azterketa egiteko plan bat aurkeztu du udalak, iaz hasi eta 2019an amaituko dena. "Akzesit honek argi uzten du soluzio berriak garatzeko eta ingurumenaren kudeaketan eta hobekuntzan eraginkorki parte hartzeko gai garela", adierazi du Aitziber Irigoras alkateak.

Sariaren notizia zabaldu eta gero, EH Bilduk nabarmendu du berak proposatutako ideia dela proiektua. Horregaz batera, egitasmoa burutzea eskatu du. "Asko pozten gaitu sari hau jasotzeak. Espero dugu plan honek irudikatzen duen proiektua egikaritzea, eta ez amaitzea azkeneko legegintzaldietan plan asko sartu diren kaxa berean", esan du koalizioak.

Bestalde, Laubidetan duen etxe bat energia efizientziari begira eraberrituko du udalak.

**Bogoroditsie abesbatzak 'Herejia' ikuskizuna eskainiko du zapatuan**

**OTXANDIO • J.D.**

Durangoko Bogoroditsie abesbatzak *Herejia* ikuskizuna eskainiko du bihar, 19:00etan, Otxandioko gimnasioan. Ikuskizunak musika, antzerkia eta dantza uztartzen ditu, eta XV. mendean Durangon Alonso de Mella frantziskotarrak sustatutako mugimendu heretikoaren kontrako jazarpena du oinarri. Ernesto Barrutia eta Izaskun Iturrioz aktoreek parte hartuko dute, besteak beste. Sarrera euro bi izango da.



# 53. DURANGOKO AZOKA

2018ko abenduaren 5etik 9ra

**DA!** ASKO DIRA

**DURANGALDEKOA ZARA?  
SORTZAILEA?  
LAN BERRIA ARGITARATU DUZU?**

**DURANGOKO AZOKAN  
DOAN SALTZEKO AUKERA DAUKAZU**

Eskatu informazioa  
**[gerediaga@durangokoazoka.eus](mailto:gerediaga@durangokoazoka.eus)**  
helbidean



# 25 ekoizlek parte hartuko dute Zaldibarko Neguko Azokan

Datorren eguenean sanandresak hasiko dira, eta herrian Euskaraldia sustatzen dabiltzan lagunek edukiko dute jaiei hasiera emateko ardura, txupinazoa jaurtita



Zubizarreta zinegotzia, Vidal teknikaria eta Azpitarte alkatea.

## ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Domeka honetan egingo dute Zaldibarko Neguko Azoka, 20. edizioa izango duen ekimena. 25 ekoizlek parte hartuko dute eta Euskal Herria kalearen inguruetan ezarriko dituzte postuak. Gazta, txakolin, ezti eta ogi ekoizleak egongo dira, besteak beste. Gainera, Jose Antonio Elustondok sagardoa zelan egin erakutsiko du.

Azokaren edizioa martitzenean aurkeztu zuten udal arduradunek, jaiekin eta trikitixa tapelketagaz batera. Izan ere, hilaren 29an hasiko dira sanandresak. Aipagarria da herrian Euskaraldia sustatzen dabiltzan lagunek edukiko dutela jaiei hasiera emateko ardura.

## Oroigarri parekidea

Jaietan Euskal Herriko trikitilari gazteen txapelketa jokatu da eta sei bikote arituko dira. Nobedade lez, irabazleek oroigarri berri bat jasoko dute. "Orain arte gizon bi ageri ziren garaikurrean. Azken urteetan neskek izan dira partaiderik gehienak, eta errealitate hori islatu gura genuen", esan zuen Delfin Zubizarreta zinegotziak.



Azpitarte Zaldibarko alkatea da gaur egun.

## Eneritz Azpitarte izango da EH Bilduren alkategaia


2019ko hauteskundeetarako programa jorratzen hasteko, batzar zabala egingo dute abenduaren 4an

## ZALDIBAR • J.G. / M.O.

Gaur egun alkate den Eneritz Azpitarte izango da EH Bilduren Zaldibarko zerrendaburua 2019ko udal hauteskundeetarako. EH Bilduk urrian egindako prozesu parte-hartzailean hautagai bakarra izan da. "Zinegotzi eta alkate moduan esperientzia dut eta lanean jarraitzeko gogoia eta motibazioa

ditut. Proiektu garrantzitsuak garatu behar ditugu datozen lau urteetan, Kultur Etxearen proiektua bereziki", esan du. Programa lantzen hasteko, Liburutegi Zaharrean batzar zabala egingo dute abenduaren 4an, 19:00etan.

Bestalde, hauteskunde zerrenda osatzeko prozesua martxoan garatuko dute.



Euskal Herriko

## Trikitilari Gazteen

XXVII. Txapelketa 2018



2018ko abenduaren 2an arratsaldeko 17:30ean

FINALA OLAZAR PILOTALEKUAN

## ZALDIBARren

1. ANE ARRIZABALAGA AGIRRE (LEGAZPI)  
ANE URZELAI OLABIDE (LEGAZPI)
2. ARAITZ ETXANIZ AZPIAZU (AZKOITIA)  
ENAITZ ALBERDI ALKORTA (AZPEITIA)
3. EIDER TOLOSA BELDARRAIN (HERNANI)  
LIERNI TOLOSA BELDARRAIN (HERNANI)

4. IANIRE SEGUOLA TOLOSA (HERNANI)  
ELAIA DIAZ BEROZ (ASTIGARRAGA)
5. ANE ETXEZARRETA LASA (OLABERRIA)  
SARA IRIARTE LASA (VILLABONA)
6. EIDER GARRO IRAOLA (HERNANI)  
ARAITZ ELIZALDE MINER (HERNANI)





## Hareek denporak!

### Egunkariaren aldeko jaietan, zaborra batzen auzolanean

1990ean jaio zen Euskaldunon Egunkaria, eta hamarkada haren hasieran ekintza ugari egin ziren Euskal Herrian hedabide berriari bultzada emateko. 1993an, esaterako, jai erraldoi bat ospatu zuten Iurretan. Su Ta Gar, EH Sukarra eta sasoi hartan Durangaldean famatua izan zen Martxoak 31 taldearen kontzertuak jendetza batu zuen Maiztegi eskola ondoan, Txonpoloko landetan.

Orain 25 urteko jaialdi hartan, jende ugari ibili zen auzolanean. Kobratu bako lan isil horretan, adibidez, talde bat zaborra batzen ibili zen. Egunkariaren kamisetak eta mahoizko prakak jantzi, akuilu bereziak eskuan hartu, eta edalontziak eta bestelakoak batzen ibili ziren egun osoan zehar. Euren eta beste lagun askoren ekarpenik barik, ez litzateke posible izango egun hura. M.O.

## Iritzia

Azaroaren 25a gerturatzen ari den honetan, feministok (in)justizia sistemaren izaera patriarkala jarri nahi dugu jo-puntuan. Honek, emakumeoi\* sinetsi ez, eta eraso sexisten erantzule egin eta berbiktimizatzen gaitu.

EHn jazotako azken eraiketa matxistek erakutsi dute judizialki salatzeak ez duela bermatzen emakumeon\* babes. Eraso jasadakoon beharrak eta baldintzak ez dira kontuan hartzen, salaketa prozesua bera oso gogorra bihurtuz. Honi askotariko indarkeriak elkar gurutzatu daitezkeela gehitu behar zaio (klase aldagaia, arrazakeria...) egoera are gehiago zailduz.

Muineko konponbideak eman gabe, kartzelaldiak gogortzea eskaintzen du sistema judizial zigortzaileak. Guk argi diogu espetxealdi iraunkor berrikusgarriaren aurka gaudela. Patriarkatuaren tresnak dira gaztigua eta presondegia; hauen bidez ez da bortizkeria amaitzen, ez baita bermatzen eraso jasadakoon erreparazioa eta ez errepikatzea.

Erauntsi feminista eragitera goaz patriarkatuaren (in)justizien aurrean. Ezinbestekoa da gaurdanik indarkeria matxistari aurre egiteko eta emakumeok\* babesteko erakunde-baliabideak aplikatzea eta hobetzea. Horregatik, Bilgune Feministatik dei egiten dugu domeka honetan, azaroak 25, 13:00ean epaitegitik hasita, Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladak deitutako mobilizaziora batzeko.

Bukatzeko, gaur "hau ez da justizia" diogu. Bihar, nahi dugun justizia definitzeko, lortzeko, asmatzeko, amesteko... egin ahalean eta borrokan jarraituko dugu.

Ane Arbeo Sarriugarte

Durangoko Bilgune Feministaren izenean

## Iritzia

### Emakumeak prentsaurrekoetan? Nolatan ba?

"KRAK". Hori da hitza. Ez Berrizko alkatea "krak" bat delako, ezta gutxiago ere, horixe delako bera entzutean sentitu genuena. "KRAK". Barnean zerbait apurtu izan bailitzan. Kontestuan edota kontestuz kanpo hartuta ere, berba ulertezinak. Aldi berean ukaezinak, grabatuta baitago bilkura osoa.

Testuingurua: Berrizko Udala 2018ko azaroaren 14ko ohiko bilkura. Legealdian zehar hainbat aldiz aipatu izan dugun kontua: "Berrizko udalak, bere berdintasun planaz hain harro dagoen horrek, nola bide eman diezaike gizonezko hutsez osaturiko kirol prentsaurrekoiei?" Kirol batzordean bagaude emakumeak, baina ez zaigu bertaratzeko gonbidapenik egiten. Hementxe alkatearen erantzuna:

Lehenengo agenda arazoei egiten die aipamen; GEZURRA, batzordeko kide garen nesko sekula ere ez digu galdetu tarte liberrik dugun. Eta bigarren... bigarrenak ez du parekorik. Hona hemen Orland Isoird EAJko alkateak hitzez hitz botatakoa: "Orduan, prentsaurrekoetan emakumeak egon behar badira, eztabaidatu beharko dugu ZELAN egon behar diren"...

**KRAK.** Hitzik gabe. Apurtuta. Amorratuta.

Adierazpenok atzera bota eta barkamena eskatzea iradokitzen zaio, baina ezetz dio.

Hara, ba jakizu, Orland Isoird alkatea, emakumeok ez dugula EZE-LAN egon behar, emakumeok bagarela, bagaudela eta bagabiltzala. Zuri eta zuk ordezkatzeko duzun eredu patriarkalari gustatu edo ez.

Eta, uzten diguzun beta halakoxea izanda, neskok... borroka da bide bakarra. Iritsiko da eguna hain eroso dagoen patriarkatuari koltxoi eroso hautsiko dioguna. Krak!

Eneritz Gorritxategi Lariz (Berrizko EH Bilduko zinegotzia)

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

## Politikan

Pilar Rios Ramos  
PSE-EE



### Sistema patriarkalaren eta indarkeriaren kontra

Emakumeak ahalduz eta indarkeria matxistaren kontrako borroka lehentasun osoko kontuak dira guretzat. Horrela frogatu dugu hainbat aldiz, era askotako ekintzen bidez, eta, batez ere, azken urteetako udal-aurrekontuen bidez.

Hala ere, gure ahaleginak alferrikakoak izango dira, gizarteko estamentu guztiak horretan engeiatzen ez badira. Hain zuzen, Durangoko gizonak eta emakumeak. Aintzatesten eta aintzatzetsiko ditugun pertsona eta erakunde horiek eredu dira, lortu nahi dugun berdintasunean oinarritutako gizartera hurbiltzeko. Nahi genuke haien eredu inspirazioa izan dadin beste batzuentzat.

Oro har, gizarteko esparru askotakoak dira, eta modu desberdinetan egiten diote aurre indarkeria matxistari. Prestakuntzako zentro batzuk nabarmendu nahi ditugu, Generoko Indarkeriaren kontrako Herritarren Ituneko jardueretan inplikatzeko eta neke gabe lan egiten dutelako ikastetxeetan aukera-berdintasunaren alde. Benetan eskertu nahi dugu zentroetako irakasleen inplikazioa, planak landu eta berdintasunean oinarritutako jolas-guneak eraiki dituztelako, nesken eta mutilen artean bereizketarik egin gabe, eta, horrela, erabilera partekatua izateko bide emanez. Era berean, kirol-taldeen egindako lana nabarmendu nahi dugu. Besteak beste, generoko estereotipoekin hautsi, eta emakumeen erreferentiek eskaini dizkigute, orain arte maskulinitzat hartu diren kirolekin. Eskerrak ematen dizkiegu, bidea erraztu dutelako emakumeak toki gehiagotan agerian egon gaitzen.

Azkenik, ez dugu osasun-zerbitzu publiko ahaztu nahi, inplikazio handiz jokatu duelako, emakumeen mutilazio genitalari aurre hartzeko eta hautemateko lanean, eta, oro har, indarkeriaren biktima diren emakumei harrera egiten eta haiek artatzen.

CERAMICAS  
**MACOBER**  
MATERIAL DE CONSTRUCCION  
Chimeneas  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA  
Eitua Industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Azaroaren 29an, osteguna  
19:00etan

DANI FANO, ALEX SANVI  
eta UNAI ITURRIAGA  
euren komikiak aurkezten eta  
sinatzen izango ditugu!!



hitz  
liburudenda

artekalea, 23 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

#aurkezpena



# Durangeldeko Mintzodromoa

Parte hartzeko eman izena Durangeldeko euskaltegietan azaroaren 27a baino lehen



639 400 786

www.durangeldea.blogspot.com  
durangeldea@aek.eus  
Durangeldeko berbalagunak

Antolatzaileak eta Udalak



Babesleak





## Maratoi solidarioak

**DURANGO :: Azaroak 24 eta abenduak 1**

### Kirola, sentsibilizazio zentraleko gaixoen alde

Sentsibilizazio zentraleko gaixoen alde izango dira Durango Kirolak erakundearen aurtengo ekintza solidarioak. Bihar Spinbikeko maratoi solidarioa egingo dute, eta abenduaren 1ean zumba. Durangon sentsibilizazio zentraleko lau gaixotasunak dituen emakume bat bizi da, eta bere ingurukoek sortutako elkartearentzat izango da dirua.

## Azaroko agenda



<b>24</b>	<b>"IJORRETAKO GAZTE ASANBLADAREN URTEURRENA"</b> 13:00 Poteoa trikitilariekin 14:30 Bertso bazkaria Askondon 17:00 Argazkia Aita San Migel Plazan 22:00 Kontzertuak Askondon
<b>27</b>	<b>"GIZARTE ONGIZATE SAILA IBARRETXE KULTUR ETXEA"</b> 17:00 "Adinkeria-Emakumeen zaharalduntze tailerra" (aurretiaz izena eman) <b>"GOIURIKO AMA" NAGUSIEN ELKARTEA</b> 18:00 Pertsona Nagusien XXVII Aste kulturalaren hasiera Hitzaldia: Las relaciones intergeneracionales en el marco familiar
<b>28</b>	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> 10:00-11:00 XL Irakurketa kluba <b>"GOIURIKO AMA" NAGUSIEN ELKARTEA</b> 19:00 "Aritz Moso" abeslariaren emanaldia
<b>29</b>	<b>"GOIURIKO AMA" NAGUSIEN ELKARTEA</b> 19:00 Bingo berezia
<b>30</b>	<b>"GOIURIKO AMA" NAGUSIEN ELKARTEA</b> 17:00 Igel eta karta txapelketa: mus, briska eta tute <b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> Haurrentzako ipuin kontalaria 18:00 "Mamuak eta beste auzokide batzuk "Nerea Ariznabarreta" (3-4 urtetakoak, lagunduta) Helduentzako ipuin kontalaria 19:00 "Sola Solae" Mon Mas

## Azaroaren 23an

**BERRIZ antzerkia**  
**'Inondik inora benetan be' antzezlan**, 18:15ean, Kultur Etxean.

**ZORNOTZA erakusketa**  
**Musika tresnen erakusketa**, 18:00etan, Etxanoko eskoletan asteburu guztian zehar.  
**'Txalaparta hutsa' kontzertu didaktikoa**, 20:00etan, frontoian.

**DURANGO azaroak 25**  
**Literatura emanaldi musikatu**, 19:00etan, Andragunean.

**ELORRIO antzerkia**  
**'Baserri' antzezlan**, 20:30ean, Arriolan.

**ELORRIO mendi astea**  
**Aitor Arbuluren hitzaldia**, 19:30ean, Iturrin.

## Azaroaren 24an

**BERRIZ antzerkia**  
**'Las hermanas Rivas'**, Kultur Etxean, 20:00etan.

**IURRETA urtemuga**  
**'Gazte Asanbladaren urteurrena'**  
**Trikipoteoa**, 13:00etan.  
**Bertso bazkaria**, 14:30ean, karpan.  
**Argazkia**, 17:00etan, Abadetxean.  
**Nevadah eta Lasai**, 21:00etan.

**ELORRIO mendi astea**  
**Erdellakoen urteko batzarra eta luntxa**, 16:30ean, Kirol Etxean.

**ZORNOTZA jaialdia**  
**Tarrañuelak eta kañaberak ikastaroa**, 11:30ean, Etxanoko eskoletan.  
**Txalaparta, adar eta perkusio tresnen erakusketa**, 12:00etan, Etxanoko eskolan.  
**Bazkari herrikoa**, 14:30ean, frontoian.  
**'Txalaparta eta adarra' umeentzako tailerra**, 17:00etan.  
**Juan Mari Beltran, Ixiar Jauregi eta Errege Belda**, 20:00etan, Etxanoko elizan.

**ABADIÑO antzerkia**  
**'La ópera de los suburbios'**, 19:00etan, Errotan.

## Azaroaren 25ean

**AZAROAK 25 MOBILIZAZIOAK**,  
**Abadiño**: 12:30ean, Trañabarrenen.  
**Berriz**: 12:00etan, martxa udaletxetik Urriagara.  
**Durango**: 13:00etan epaitegitik.  
**Elorrio**: 13:00etan, plazan.  
**Zaldibar**: 13:00etan, Lehendakari Agirren.  
**Zornotza**: 13:00etan, adierazpen instituzionala.

**MALLABIA antzerkia**  
**'Sex o no sex'**, Kontzejuzarrean, 12:30ean.

**ZORNOTZA ikastaroa**  
**'Txalaparta eta adarra' hastapen ikastaroa helduentzat**, 11:00etan, Etxanoko eskoletan.

## Azaroaren 27an

**ELORRIO jardunaldiak**  
**'Baso jardunaldiak. Baso politika berri baterantz'** berbaldea, 19:00etan, Iturrin.

## Azaroaren 28an

**DURANGO literatura**  
**Giza Biblioteka**, 18:30ean, bibliotekan.  
'Bideak Gurutzatuz. Maroko' ekimena.

## Azaroaren 29an

**DURANGO berbaldia**  
**'Zapia: esangura eta bizipenak'**, 18:30ean, bibliotekan.  
'Bideak Gurutzatuz. Maroko' ekimena.

**DURANGO musika**  
**Dj Cut Fasta B**, Txo tabernan, 'Jan&Jai' ekimenaren barne.

## Azaroaren 30ean

**DURANGO literatura**  
**Helduentzako narrazioak**, 19:00etan, bibliotekan, Hector Urienegaz. 'Bideak Gurutzatuz. Maroko' ekimena.

**DURANGO musika**  
**Jam session**. 21:30ean, Plateruenean.

**ELORRIO kontzertua**  
**Caboverde eta Liher**, 22:30ean, Ateneoan.

**ZALDIBAR kontzertua**  
**Eskean Kristo eta Puta Purpurina**, 23:00etan, Gaztetxean.

## Abenduaren 1ean

**DURANGO literatura**  
**Umeentzako ipuinak**, 12:00etan, bibliotekan, Hector Urienegaz. 'Bideak Gurutzatuz. Maroko' ekimena.

**DURANGO kontzertua**  
**Des-kontrol eta Rotten XIII**, 22:30ean, Plateruenean.

**ABADIÑO antzerkia**  
**'I Ni Ce'**, 19:00etan, Errotan.

**DURANGO kontzertua**  
**Kamerata Oiaso**, 20:00etan, San Frantzisko elizan.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**'Circo de pulgas'**, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

## Zinema

**:: Berriz KULTUR ETXEA**  
· **Viaje al cuarto de una madre**  
barikua 23: 22:00  
domeka 25: 19:00

**:: Durango ZUGAZA**  
· **Superlopez**  
barikua 23: 19:30/22:00  
zapateria 24: 17:00/19:30/22:30  
domeka 25: 16:30/19:00/ 21:15  
astelehena 26: 18:30/21:00  
martitzena 27: 20:00  
eguzatena 28: 20:00  
· **Campeones**  
barikua 23: 19:30/22:00  
zapateria 24: 17:00/18:30/20:30  
domeka 25: 17:00/19:00  
astelehena 26: 18:30/21:00  
martitzena 27: 20:00  
eguzatena 28: 20:00  
· **Mi obra maestra**  
barikua 23: 19:30  
zapateria 24: 22:30  
domeka 25: 18:00/21:15  
astelehena 26: 18:30/21:00  
martitzena 27: 20:00  
eguzatena 28: 20:00  
· **Los crímenes de Grindelwald**  
barikua 23: 22:00  
zapateria 24: 19:30/22:30  
domeka 25: 20:30  
· **Trenk**  
zapateria 24: 16:30  
domeka 25: 16:30

**:: Elorrio ARRIOLA**  
· **Infiltrado en el KKKlan**  
zapateria 24: 22:00  
domeka 25: 20:00  
astelehena 26: 20:00

**:: Zornotza ARETOA**  
· **Animales fantásticos: Los crímenes de Grindelwald**  
barikua 23: 20:15  
zapateria 24: 22:00  
domeka 25: 17:00 eta 20:00  
astelehena 26: 20:15

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [kultura@anboto.org](mailto:kultura@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Unai Agirre Goia**  
Euskal Sagardoa  
jatorri-deituraren  
koordinatzailea  
**Hernani | 1975**

SORLAND AGENTZIA

## “Euskal Sagardoa bertako sagarrekin egindako kalitatezko produktua dela erakutsi gura dugu”

Euskal Sagardoa Durangaldean ezagutarazteko, ekitaldi-sorta antolatu dute azaroaren 29tik abenduaren 2ra, Durangon. Sagardo-dastatze bi eta sagardo jaialdia antolatu dituzte, besteak beste.

### DURANGALDEA • ANBOTO

Edateko erraza, freskagarria, alkohola graduazio baxukoa eta oso osasungarria. Merkatu interesgarria zabaltzeko ezaugarri bereziak ditu Euskal Sagardoak. Hala ere, horren esentzia eta atzean duen lana ezagutaraztea, eta bere garrantzia azpimarratu behar dela uste du jatorri-deituraren koordinatzailea den Unai Agirrek. Bide horretan, Euskal Sagardoa ezagutu eta dastatzeko aukera emango dute Durangon. Saltsanen laguntzagaz, dastatze maridatuak eta show cooking-a ere prestatu dituzte.

Euskal Sagardoa dastatzeko aukera eskainiko duzue Durangon. Nola antolatu dituzue dastatze hauek? Durangaldean eta, orokorrean, Biz-

kaian, produktua bera ezagutzera eman behar dela uste dugu. Garbi azaldu zer den Euskal Sagardoa: bertako sagarrekin egindako kalitatezko produktua dela erakutsi gura dugu, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko sagarra eta sagardogileak batzen dituen. Hori guztia azaltzeko eta produktua probatzera emateko, sagardo-dastatze bi egingo ditugu, lau tabernetan. Napozt eta

“**Sagardoa edateko interesa piztu gura dugu, eta, horretarako, jakintza minimo batzuk eman gura ditugu**”

Ai Ama tabernetan emango ditut nik, azaroaren 29an, eta Herria eta Txo tabernetan Mikel Garaizabalek, azaroaren 30ean. Oinarrizko dastatzeak izango dira eta tabernekin pintxoekin lagunduko dute. Afari maridatua ere egingo dugu, abenduaren 1ean, Kili-Kolo txokoan, eta sagardo jaialdia, abenduaren 2an, Andra Marian. Hainbat sagardogilek euren sagardoa eskainiko dute, eta Basatxerriren pintxoak ere egongo dira. Dastatze maridatuak eta show cooking-ak ere egongo dira Saltsanen laguntzagaz.

**Beraz, Euskal Sagardoa ezagutaraztea da helburua.**

Euskal Sagardoa Durangaldean ezagutaraztea, dituen berezitasunak azaltzea eta, apurka-apurka, bertako tabernetako eta ostalaritzako eskaintzan sartzen joatea da helburua. Horregaz batera, sagardoa edateko interesa piztu gura dugu eta, horretarako, jakintza minimo batzuk eman gura ditugu.

**Zeintzuk dira Euskal Sagardoaren ezaugarriak?**

Bertako klimak eta lurak ematen dizkiote ezaugarriak gure sagardoari. Lur bustitsuan gaude, lur azidotan, klima heze batean, eta sagarrak oso muturrekoak dira: sagar oso gaziak dira gureak, eta, bestetik, oso mikatzak. Bien nahasketak mustio oso berezia ematen digu, eta hori irakinda lortzen dugu gure sagardoa: normalean karakter handiko sagardoa, gazia edota mikatza. Inoiz ez gozoak.

**100 sagar motatik gora onartzen ditu jatorri-deiturak. Hori ere badu berezitasuna?**

Nahiz eta jatorri-deitura berria izan, milaka urteetan zehar egin da sagardoa hemen. Bizkaian ia erabat galdu zen —gutxiago, Gipuzkoan— baina berriz berreskuratu da, eta hainbat sagar barietate ditugu. Jatorri-deituraren barruan altxor bat dugu, galdu gura ez duguna. Ez dira berdinak Gipuzkoako gune batzuetan erabilitako sagarrak edo Bizkaian erabiltzen direnak; berdin, Araban. Badaude 20 bat sagar barietate denak erabiltzen dituztenak, baina inguru bakoitzak bere sagarra du eta horiek errespetatu egin gura ditugu, sagardoari ukitu berezi bat ematen dietelako. Bertako sagardoak baditu ezaugarri batzuk eremuari, sagar motari eta egiteko moduari lotuta daudenak, baina leku bakoitzeko sagardoak badu bere ukitua, eta hori errespetatu egiten da.

**%100ean bertako sagarrekin egiten da Euskal Sagardoa, goi mailako kalitatea eskainiz. Zeintzuk kalitate berme eskaintzen ditu?**

Jatorri-deitura guztietan bezala, prozesu guztia kontrolatzen da: hasi sagastitik eta botilaratu bitartean. Jatorri-deiturara zuzendutako sagardoa kupeletik atera eta botilaratzeko prest dagoenean deitzen digu sagardogileak, lagin bat hartzera joateko. Analitika bat egiten diogu lagin horri, eta bost dastatzailek probatzen dute oni-

ritzia emateko. Hori da bermerik handiena.

**Nolabaiteko prestigioa ematen dio sagardoari jatorri-deiturak?**

Bai. Baina, horretarako, Euskal Sagardoa zer den azaldu behar dugu. Gipuzkoan hasiak gara horretan lanean eta Bizkaian ere hasi gura dugu. Merkatu potentzial handia da Bizkaia: jatorri-deituran Bizkaiko bost sagardotegi daude, sagasti dezenteko eta lan egiteko gogo handia. Gainera, denontzako merkatu bat

“**Milaka urtean zehar egin da sagardoa hemen. Jatorri-deituraren barruan badugu altxor bat galdu gura ez duguna**”

dago. Bizkaiak sagardoa berea ere badela ulertzea gura dugu, eta ez kanpotik datorrena. Horretarako, produktua bera ez ezik, kontsumo ohiturak ere berreskuratu behar dira. Jendea hezi gura dugu.

**Nola landuko dituzue kontsumitzeko ohitura horiek?**

Euskal Sagardoa botilako produktua dela nabarmendu gura dugu, ontziraturako kalitatezko produktua dela. Botilara, jatetxera, txokora, etxeetara... iritsiko den produktua da lantzen ari garena, eta, horretarako, kalitatea, irudia, prestigioa eta *relatoa* behar dira. Hori guztia

badu sagardoak, eta horretan eragin gura dugu. Zerbitzatzeko eran ere ari gara lanean, ostalaritzarako egokia izan dadin. Basoaz gain kopa erabiltzea proposatzen dugu; sagardoa 10 bat zentimetrotik zerbitzatzea, eta 10 bat graduan. Produktuak eskatzen duen mimo hori ematea eskatzen dugu, beti ere kalitatezko produktu batetik abiatuta.

**Nolako lana dago Euskal Sagardoaren atzean?**

Jatorri-deitura moduan, Kontseiluan egin den urteetako lana dago hor, amaierarik ez duen lana; eta, Europaren oniritzia izateko, Jaurilaritzagaz egindako lana izapide guztiak lortzeko. Kontrol eta ziurtapen lana ere bai. Hala ere, garrantzitsuena sagardotegi bakoitzak egindako lana da. Sagardo botilaren atzean sagastiko lana eta bodegan egin beharreko lana daude. Lan handia dago, baina nabarmendu egin behar dena. Bertako sagarraren aldeko apustua ezinbestekoa da bertako baserria eta ingurugiroa zaindu gura badi-

tugu. Ez hori bakarrik. Kalitatea ere hortxe dugu, milaka urtean sagardoa egiteko landu ditugun

“**Garrantzitsuena sagardotegi bakoitzak egindako lana da. Lan izugarria dago, baina bere garrantzia nabarmendu behar da**”

“**Euskal Sagardoa botilako kalitatezko produktua dela nabarmendu gura dugu**”

sagar horietan. Sagasti eta sagardotegietan egiten den lan handi hori nabarmendu beharra dago. **Zenbat sagardogile daude jatorri-deituraren barruan?** Guztira, 50. Bost bizkaitarrak dira, arabarrak bi eta gipuzkoarrak 43.

Bestalde, 300 bat sagar ekoizle daude jatorri-deitura barruan, baldintza jakin batzuk betetzen dituztenak; kalitate berme batzuk eta lan egiteko modu bat eskatzen zaizkie. Gaur egun, 550 bat hektarea ekoizten dira Euskal Sagardorako. Asko da, baina sektore hori profesionalizatzen ari gara apurka, lortu genezakeena baino eskari handiagoa dugulako.

**Zein da etorkizuneko erronka?**

Sagardoa, hemengo sagarra eta sektorea nabarmentzea, bai kontsumitzaileei dagokienez bai sektoreari dagokienez. Sektorea desberdin ari da lanean: sagastia oinarririk landuz, kalitatea landuz... botilari begira ari dira lanean, produktuari buelta bat eman guran. Bada, merkatura joan behar dugu eta merkatuak hori guztia ulertu egin behar du. Sagardoa dagokion tokian jartzea, hori da helburu nagusia.

**Zeintzuk abantaila ematen dizkie Euskal Sagardoak kontsumitzaileei zein ekoizleei?**

Bertako sagarrekin egindako ka-

litatezko produktu oso osasuntsu baten aurrean dagoen bermea ematen dio kontsumitzaileari. Bertokoaren eta gure inguruaren aldeko apustu garbia da, sagardogile eta sagar ekoizleek egiten duten produktua baloratua izango den bermea. Izan ere, araudi oso estua bete behar du. Horrek merkatuko ate berriak zabalduko dizkio. Sagardoa asko estimatzen da hemendik kanpo. Hemen ere hasi da, baina oraindik lana dugu egiteko. Gura genuke kanpoan onartzen den hori ere etxean poliki-poliki onartzen joatea.

**Sagardoa kupeletatik ateratzeko bidea ematen du jatorri-deiturak?**

Jendeak uste duenaren kontra, ekoiztutako sagardoaren %95 botilakoa da; kupeletatik edaten den sagardoa %4-5 baino ez da. Eta botilako sagardoaren garrantzia azpimarratu gura dugu; hari kalitate bat eman. Ulertu dadila kalitatezko produktu bat dela, osasungarria, eta edozein mahaitan lekua duena. Pauso bat aurrera eman behar dugu.

**Jolasak bitarteko, Euskal Sagardoak emandako aukerak ezagutzeko gonbita**



**MIKEL GARAIZABAL**

**Elorrio, Enologoa**

**DURANGO • ANBOTO**

Sagardo arinak, garrantasun atsegina dutenak, ahoa gehiago betetzen duten sagardo ahaltuagoak, taninodunak... aukera zabala eskaintzen du Euskal Sagardoak. Sagardogile bakoitzak bere estiloa du eta, urtearen arabera, sagardoa desberdina izaten da. Hartara, "dibertsifikazio handia eskainiko du Euskal Sagardoak ahoan". Kontuan hartzeko ezinbesteko ezaugarriak dira, bestalde, kolorea eta frutadun usain garbia.

Euskal Sagardoak emandako aukerak erakutsiko dituzte sagardo-dastatzeetan, eta, horretarako, jolasak erabiliko dituzte, Mikel Garaizabalek azaldu duenez. "Edalontzian edo kopan, desberdina da sagardoak utzitako lurruna; era berean, sagardoa apurtuz gero, usain leherketa emango da, eta lurrunak ihes egingo digu". Sagardoa tenperatuta egokian zerbitzatu behar dela gaineratu du Mendizabalek, "hotz-hotz badago, ez dugu-eta ezer apreziatuko". Bere berbetan, "Euskal Sagardoa probatzea gura dugu, produktua baloratzea eta horregaz gozatzea".



LEHIOR ELORRIAGA

Zornotzako Uxarte Sagardotegia Euskal Sagardoa jatorri deitura barruan dago.

**euskal sagardoa Durangon**  
azaroaren 29tik abenduaren 2ra

**KATA GIDATUAK**

AZAROAK OSTEGUNA	29	NAPOZT 19:30ean AI AMA 20:30ean	SAGARRETIK SAGARDORA Unai Agirre
AZAROAK OSTIRALA	30	HERRIA 19:30ean TXO 20:30ean	KALITATEZKO ZAPOREAK Mikel Garaizabal

**AFARI MARIDATUA**

ABENDUAK LARUNBATA	01	KILI-KOLO 21:30ean	Euskal Sagardoa, Labeldun produktuekin uztartuko da afarian Iñaki Uribe (Saltsan)
-----------------------	----	-----------------------	---

**SAGARDO FESTA**

ABENDUAK IGANDEA	02	ANDRAMARIn 11:30etik 15:30era	Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardogileak, Basatxerri solomo buru errea, show cooking, Broken Brothers Brass Band, katak...
---------------------	----	----------------------------------	--



## “Geldialdiaren osteko lehenbiziko entseguan marraztu zitzaigun irribarrea ordainezina da”

Muted seikote abadiñarrak disko berria kaleratu du gaur, 'Krisis 4.0', euren ibilbideko laugarrena; zuzenean aurkezteko dataren bila dabilta orain lanean buru-belarri

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Plateruenean kontzertu bat emateko batzeko aitzakiagaz, inoiz albortu ez duten musikaren munduan murgildu dira berriro Mutedeko taldekideak: Aitzol Maiztegi (ahotsa), Rubén Montoto (bateria), Dani Benito (gitarra), Edu Pérez (gitarra) eta Christophe Tytgat (programazioak). Gerora batu zaie Asier Otaduy, baxuagaz. Kontzertu gehiago eskaintzeaz gainera, 'Krisis 4.0' lan berria kaleratu du gaur seikote abadiñarrak. Zazpi urteko isilaldiaren ostean, euren formulak bizirik jarraitzen duela erakusteko asmoagaz datoz: metal boteretsua, melodiak eta sekuentzia elektronikoko programatuak.

Nondik dator 'Krisis 4.0'?

Christophe Tytgat: Bizimodu modernoan mugikorrarekiko dugun

menpekotasunari egiten dio erreferentzia, adibidez. Egun arazo txikiekin itotzen gara, baina ez dakigu zer den benetan gaizki pasatzea. Horrez gain, 40 urte betetzean sortutako krisiagaz du zerikusia, eta laugarren diskoa ere badenez, gustatu zitzaigun.

“Zortzi urte hauetan itzultzea eduki dugu buruan, baina inork ez zuen gaia mahai gainean jartzen”

**Edu Pérez:** Autokritika bat ere badago. Orain guztia sare sozialen eta *Atsegin Dut* kopuruaren araberakoa da. Gazteak mentalitate horregaz datoz, baina funtsean gu ere berdinak gara.

**Abestietako hitzak horri buruzkoak dira?**

**Rubén Montoto:** Aurreko diskoetan baino kritika sozial gehiago egin dugu, baina autokritikatik enfokatuta.

**C.T.:** Ez da ez! abestian, adibidez, sexu erasoen aurka abesten dugu. Funtsean esan gura duguna da erraza dela Facebook bidez kritikatzeko, baina gero ezer ez egiteak ez duela ezertarako balio.

**Aitzol Maiztegi:** Zuri Esker abestian, ostera, gure ibilbideari buruz abesten dugu. Hamabost urte daramatzagu elkarregaz, eta hau da gustuko duguna; horregatik itzuli gara.

**Kontzertu bat eskaintzeko batu zinteen, baina diskoa kaleratzen amaitu duzue. Nolako izan da prozesua?**

**E.P.:** Ondo pasatzeko eta abesti batzuk sortzeko asmoagaz itzuli ginen, lehen baino lasaiago hartzeko asmoz, baina orain ere presioa ezartzen diogu geure buruari (barrez).

**R.M.:** Geldialdiaren ostean elkartu gineneko irribarrea ordainezina da. Egia esateko, zortzi urte hauetan itzultzea eduki dugu buruan, baina inor ez zen ausartzen gaia mahai gainean jartzera!

**A.M.:** Ea itzuliko ginen galdetu didaten bakoitzean, 'Garai hori igaro da' erantzun izan dut; hala ere, kontzertu bat ikusten nuen

bakoitzean, onartzen dut 'Ordaindu egingo nuke hor goian egoteagatik' pentsatu dudala.

**E.P.:** Planik barik hasi ginen, Plateruenean kontzertua emateko asmoagaz. Bagenekien itzuliko ginela, baina inguruan azaltzeko aitzakia behar genuen!

**Konposatzerakoan, igarri duzue zazpi urteko geldialdia?**

**T.C.:** Aurreko hiru diskoak jarraian konposatu genituen, eta hor bai igarri genuen. Hamalau abesti erdi konposatu ditugu honetarako, eta, azkenean, zortzi sartu ditugu diskoan.

**A.M.:** Grabazio prozesua oso lasaia izan da, guztia lokalean egin dutu eta. Ahotsak eta koroak, adibidez, bereziki landu ditugu disko honetan.

**R.M.:** Gaur egun ordenagailu batez gain, soinu nahiko ona ateratu dezakezu, eta horregatik erabaki dugu lokalean egitea. Askok kostatzen zaigu elkartzeko, eta, horrela, lasaiago hartu dezakegu gainera.

**Zuen belaunaldiko jende ugari ari da oholtzara itzultzen.**

“

**Aitor Gorosabelek (Su Ta Gar), Aiora Renteriak (Zea Mays) eta Carlos Escovedok (Sober) abestu dute”**

■

**C.T.:** Talde asko ari dira itzultzen orain, baina, nik dakidala behintzat, talde berri gutxi sortzen ari dira. Esango nuke asko jaitsi dela metala Euskadin.

**E.P.:** Guk bizi genuena ez da berriro errepikatuko. Orain popa, indiea eta reggaetoiak daude modan.

**R.M.:** 40 urteen krisiagaz kirolera lotzen dira batzuk. Gu jotzera itzuli gara!

**Nola banatuko duzue diskoa?**

**Asier Otaduy:** USB formatuan kaleratu dugu. Diskografia osoa dago bertan. Euskarri digitaletan ere egongo da. Durangoko Azokan Gerediaga elkartearen standean ere egongo da, eta eskualdeko beste hainbat tokitan.

**Hainbat kolaborazio izan dituzue diskoan.**

**A.M.:** Aitor Gorosabelegaz (Su Ta Gar) eta Aiora Renteriak (Zea Mays) email bidez jarri ginen harremanetan, eta oso harrera ona egin ziguten. Musikari oso onak dira, eta pertsona hobeak.

**E.P.:** Carlos Escovedok (Sober) euskaraz abestu du disko honetarako. Inox diskoan bateriaren ekoizketa lana egin zuen, eta oso harreman ona egin genuen beragaz. Abes-terea etor zedin gonbidatu genuen eta animatu egin zen.

**Zuzenekoak eskainiko dituzue?**

**A.O.:** Bai, kontzertu batzuk lotuta ditugu jada. Batez ere, areto erretinetan. Eta gaztetxeetan ere ari gara begiratzen.

**A.O.:** Lotuta ditugun kontzertuetatik gainera, zuzeneko gehiago lotzeko eta eskaintzeko gogoz gaude.



# 439 nobedadegaz, uzta oparoaren isla izango da Durangoko Azoka

'DA! Asko dira!' leloagaz, 53. edizioan aniztasunaren plaza izan gura du Durangoko Azokak



Nerea Mujika Gerediagako lehendakaria eta zortzi guneetako arduradunak, Landako Gunean

## AZOKA • ARITZ MALDONADO

304 liburu, 93 disko, 18 aldizkari, argitalpen digital bat eta bestelako 23 argitalpen berri egongo dira, zehazki, 53. Durangoko Azokan. 247 postutan zehar euskal kulturgintzaren uzta oparoa entzun, ukitu eta sentitu ahalko da. Durangoko Azoka osatzen duten zortzi guneetako egitaraua ere eman zuten ezagutzera Landako Gunean egindako prentsaurrekoan.

**Irudienean 'Soinujolearen Semea' filmearen aurrestreinaldia berezia egingo dute, adibidez**

**200 kultur ekitalditik gora egingo dira Durangoko Azokaren zortzi guneetan**

Guztira, 200 kultur ekitaldi baino gehiago egingo dira gune horietan abenduaren 5etik 9ra bitartean.

Bestalde, lehenbiziko Sormen Bekaren irabazlea nor izan den jakinaraziko dute abenduaren 6an egingo den ekitaldian. Bosgarren urtez Autoekoizleen Plaza delakoa ere egongo da, eta 17 sortzailereren ekoizpenak egongo dira bertan.

## Gai librea

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo  
Durangoko Museoa



### Giza biblioteka

Biblioteka bat liburuen etxea da, baina ez hori bakarrik. Hitzen etxea ere bada, ezagutzarena, istorioena, pentsamendua, sentimendua, bizitzena, abenturena... Hori guztia eta are gehiago sartzen da liburu batean, eta beraz, halako hamaika daude biblioteka batean. Paperezko ohiko formatuaz gain, gaur egun digitala ere erabiltzen dugu, baina bada beste formatu bat ere, agian hain ezaguna ez dena, 2000. urtean Danimarkan sortu zena: giza biblioteka.

Ohiko liburuetan idatzizko letrak dira istorioak kontatzen dizkigutenak, baina giza bibliotekan ahozko hitzak dira hori egiten dutenak. Liburuak ez dira paperezkoak, hezurharagizkoak baizik.

Proposamen berritzaile honen jarraituko dute (2017an egin zen estreinakoz) Durangoko Bizenta Mogel Bibliotekan. Aurtengo gaia "Bideak gurutzatuz. Maroko" da. Bertan gure komunitatearen parte diren 6 pertsonen bizi istorioak ezagutzeko aukera izango dugu. Ahmed Maataoui, Lamy, Ahmed, Mohammed, Farid eta Mariam izango dira liburuak eta kontatuko dituzten istorioak; bidaia, oihalgintzaren enpresa bateko ezkutuko aurrepia, norberaren sorterrian atzerritarra izatea, gizartearen aurreiritziak, Rifeko istoriak eta beloaren erabilpena.

Giza Bibliotekaren bidez, desberdintasuna gorai patzen da, eta sustatu egiten dira elkarriketa, tolerantzia, ikaskuntza, eta beste bizitza estilo eta kulturetatik datozen pertsonen elkar ulertzea. Azaroaren 28an, 18:30ean, Bizenta Mogel bibliotekan izango da hitzordua. Ez aukera galdu esperientzia berri honetaz disfrutatzeke.

# Mundu osoan antolatuko den 'Fair Saturday' Elorrioren 'Zapaturdei' izango da

Elorrioko eta inguruko hainbat elkartek parte hartuko dute azaroaren 24rako antolatuko den elkartasun ekimenean

## ELKARTASUNA • A.M.

Kainaberak antolatuta, *Zapaturdei* ekimena egingo dute zapatuan, hilak 24. Elkartasuna eta kultura batu gura ditu ekimen honek, egun osoko egitarauan. Elorrioko hainbat elkartek eta artistek parte hartuko dute ekimenean. Bestek beste, Eneko Larrañaga 'Enekora'-k txalaparta tailerra eskainiko du, ar-

gazki taldekoek photocalla egingo dute eta Sugoi taldekoek kontzertua eskainiko dute. Arratsaldean, *Euskal emakume olerkari eta idazleak* elkartasunezko pintxo potea egingo dute.

Bestalde, Gaztetxeko kideek egitarau alternatiboa proposatu dute. Arratsaldean mahai-ingurua egingo dute, eta gauean, kontzertuak.



Kainaberak hainbat ekimen antolatzen ditu urtean zehar.

www.plateruena.eu

**PLATERUENA**

**PLATERUENA Kafe Antzokia**  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jaletxea@plateruena.net

**Azaroak 23 · 21:30ean**  
**PUB QUIZ**  
Lehiaketa

**Azaroak 24 · 22:00etan**  
**SU TA GAR**  
Kontzertua

**Azaroak 30 · 21:30ean**  
**JAM SESSION**  
Jam Session

**Un músico entre la niebla**  
XXIX Quincena musical  
Azaroak 24, 20:00etan

**Max Txikia**  
Arena en los bolsillos  
Azaroak 25, 12:30ean eta 17:30ean

**San Agustín KULTUR GUNEA**  
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.es

# Osasun gida

anboto

**Ginekologia**  
PSE: 93/18

**mām** ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO  
T 946 05 53 04  
info@mamginekologiadurango.com  
www.mamginekologiadurango.com

**HITZORDUA ESKATU**  
**674 322 360**

**Naturopatia**  
PSE: 49/18

**NAROPA**  
Naturopatia eta masaje zentroa

Masaje deskontrakturantea  
Drenatze linfatikoa.  
Osteopatia.  
Tratamendu naturalak  
Masaje metamorfikoa

San Ignazio Auzunea 1, behea. Durango  
675 706 599  
www.naroba.net

**Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**  
PSE: 57/16

**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

**Fisioterapia**  
PSE: 155/17

**HOBETU**  
Fisioterapia & Podologia

info@hobetu.es  
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2  
P.K./ 48230 Elorrio  
www.hobetu.es

**Podologia**  
PSE: 148/13

**PAUSOZ PAUSO  
PODOLOGIA KLINIKA**

GOIATZ MURUA  
Podologoa  
**AINHOA ELORZA**  
Podologoa  
**NEREA RODRIGUEZ**  
Podologoa

Kiropodia, onikopatia,  
alterazio dermatologikoak  
eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO  
946 203 630

**Odontologia**  
PSE: 145/13

**clínica dental hartzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}  
DURANGO  
Tel.: 946 819 951  
Mug.: 717 194 454  
uecdental@gmail.com

**Odontologia**  
PSE: 112/13

**J.L. URRETA ZABALO**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO  
Tel.: 946 812 200

**Estetika**  
PSE: 16/09

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaestheticadurango.com

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa  
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren  
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6**  
48200 - DURANGO  
Tel.: 946 810 387

**Psikologia**  
PSE: 62/11

**JON ARRUBARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOIA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

**Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO**  
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz  
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

**Optometria**  
PSE: 162/13

**keinu** optometria zentroa

Nai Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

- Optometriar teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3  
48240 Berriz  
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

**Pedagogia**  
PSE: 63/63

**UGATZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO ZENTROA**  
Laguntza goiztiarra,  
psikomotrizitatea,  
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea  
DURANGO  
ugatz@hotmail.es  
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



**RENAULT**  
Passion for life

Gabon hauetan  
arrazoi bat gehiago dugu ospatzeko.



50 urte beteko dira Elf gomendatzen hasi ginenetik.



**EGIZU RENAULT AZTERKETA**  
**Aldatu Elf olioa eta iragazkia**  
**eta eramazu opari**  
**GABONETAKO SASKI HAU.**



**SALMENTA OSTEKO ZERBITZUA** Renault

\*19.000 unitate. Izakinak amaitu arteko eskaintza. Baldintzak kontsultatzeko eta kupoia inprimatzeko: [www.renault.es/renault-posventa](http://www.renault.es/renault-posventa)

[f](https://www.facebook.com/renault.es/renault-posventa) [i](https://www.instagram.com/renault.es/renault-posventa) [y](https://www.youtube.com/renault.es/renault-posventa) [renault.es/renault-posventa](http://www.renault.es/renault-posventa)

**GAURSA**

Arriandi auzoa, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA  
Otaola etorbidea, 22. Tel. 943 82 09 74. EIBAR  
[www.gaursa.com](http://www.gaursa.com)

# Gaztetasunak lagunduta, igotzeko hautagai bihurtu dira Elorrio eta Urgozo errugbi taldeak

Elorrion, esaterako, gazteen taldetik 12 jokalaria igo dira aurten, denak aldi berean, eta senior taldea indartu dute

**ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO**

Euskadiko Bigarren Mailako sailkapenari begiratzeak gustua ematen du: Elorrio Rugby Taldea lider dago jokatutako bost partiduetan irabazita, eta Zornotzako Urgozo orpoz orpo du, porrot bakarragaz. Talde biak igoera faseko postuetan daude.

Jokalaria gaztez beteta daude. Esaterako, Elorrion 19 urteko 12 gazte lehenengo taldera igo dira aurten. Denak aldi berean. "Taldearen maila igo egin dute eta, gazteak direnez, hobetzeko tarte dute oraindik", azaldu du Julen Herrerok, Joan Ander Crendegaz batera Elorrio gidatzen duen entrenatzaileak. Gazteekin, iaiztik jarraitzen dutenekin eta errugbira itzuli diren hiru-lau jokalarigaz talde "indartsua" osatu dutela uste du. "30 bat fitxa ditugu eta partiduetara joateko 25 bat jokalaria prest egoten dira". Kantitatea eta kalitatea, biertatik dute. "Gustua ematen du entrenamenduetara joateak", onartu du.

Urgozoren batez besteko adin taldea 22 urte inguruan dago. Orain lau urte sortu zuten taldea eta Aitor Etxebarriak hiru daramatza entrenatzaile. Espainiako selekzioagaz hainbat bider jokatu duen gorliztarrak kabi aproposa aurkitu zuen bere jakintza zabaltzeko. Urte



Elorrio eta Urgozo taldeko jokalaria aurrez aurre mele batean, elkarren kontra urrian jokatutako partiduan.

horietako lanaren uzta jasotzen ari dira aurten. "Denboraldi hasieran esan nien aurten puntutxo bat gehiago eman behar genuela eta, egia esanda, ematen ari dira, oso ondo gainera", dio Etxebarriak.

### Igoera fasea buruan

Orain arteko emaitzak ikusita, Urgozo taldekoek helburuak egu-

neratu dituzte. "Igoera fasera sailkatzen saiatuko gara", onartu du Etxebarriak.

Elorriok ere igoera fasea du helburu. Igoera lortuz gero, taldean erabakiko dute hori baliatu ala ez. "Jende gaztea dagoenez, beharbada baietz esango dute. Denen artean hartu beharreko erabakia izango da", argitu du Herrerok.

**A. Etxebarria: "Jokalariei esan nien aurten puntutxo bat gehiago eman behar zutela, eta ematen ari dira"**

## Mendi bizikleta martxagaz dohainik gozatzeko aukera dago Zaldibarren



**MENDI BIZIKLETA • J.D.**

Zaldibarko Lagun Artea elkar-  
teak XVII. Mendi Bizikleta Mar-  
txa antolatuko du domekarako.  
10:00etan hasiko da, udaletxe  
pareko plazatik. Ibilbide bi pre-  
tatu dituzte. Nagusiak 30 kilo-  
metro eta 1.200 metroko desni-  
bel positiboa ditu. Laburragoak  
24 kilometro eta 800 metroko  
desnibel positiboa ditu. Bigar-  
ren ibilbide hori iazkoa baino  
errazagoa izango da.

Modu bi daude izen-ema-  
tea egiteko: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)  
webgunean edo probaren  
egunean bertan. Doakoa dela  
da Zaldibarko martxaren ezau-  
garri berezietako bat. Hala ere,  
parte-hartzaileek beharrezko  
azpiegitura guztiak izango di-  
tuzte: hornidura puntu bi, bi-  
zikletak garbitzeko mangerak,  
dutzak... Iaz 400 parte-hartzaile-  
lek gora egon ziren.

# Kanadan elur-jausi erraldoia bertatik bertara ikusi zutenen bideolana ikusgai egongo da gaur Elorrion

Iturri kultur etxean erakutsiko dute, Erdella mendizale taldeak antolatutako Mendi Astearen barruan

**MENDIA • JOSEBA DERTEANO**

Iaz Kanadako Mendi Arroksuetan zeudela, esperientzia harrigarri baten lekuko izan ziren Aitor Arbulu, Jurek Ziemkiewicz, Ane Hernani eta Igor Bernas mendizaleak. Elur-jausi erraldoi bat bertatik bertara ikusi eta grabatu zuten. Irudi haiek zein Kanadan bizitako beste abentura batzuetakoak batuta, *Expect the Unexpected* bideolana osatu dute eta gaur Elorrion ikusi ahaliko da Erdella taldeak antolatutako Mendi Astearen barruan. Aitor Arbulu elorriarra ere hantxe egongo da azalpenak ematen. Emanaldia 19:30ean hasiko da, Iturri kultur etxean.

Mendiko aterpe batean eman zituzten azken bost-sei egunak. Helikopteroz joan ziren hara, bai-

na itzulera lurretik egitea erabaki zuten: 45 bat kilometro eskiatzen lehenengo, eta 90 bat kilometro lur orotako ibilgailuan, ondoren. Oinez zebiltzala, hiru lur-jausi gune zeharkatu zituzten. Azkenekoa igaro ostean, arriskuaz ohartarazten zuen *expect the unexpected* kartela ikusi, eta bere aurrean argazkiak ateratzen geratu ziren. Ordutik aurrerakoa ez dute sekula ahaztuko. "Zarata bat entzun genuen. Lur-jausi bat zetorren. Handia zela ohartuta, urrundu egin ginen hasieran. Gero, kuriositateak eraginda, gerturatu egin ginen. Bost minutu lehenago, lur-jausiko leku beretik pasatu ginen. Bidaia berezia izan zen, gauza askogatik, baina esperientzia hori bakarra da", gogoratu du Arbulu elorriarrak.



Aitor Arbulu elorriarra Iturri egongo da azalpenak ematen.

## Emakumeentzako xake txapelketa antolatu dute domekarako Elorrion

**XAKE • J.D.**

Elorrioko Zaldi Baltza xake taldeak Emakumeen Arteko Xake Txapelketa antolatuko du domekan. Adin guztietako emakume federatuek zein federatu gabekoek parte hartu dezakete lehenengo aldi honetan.

Txapelketa 10:00etan hasiko da, Elorrioko Kirol etxean. Sistema suitzarra erabiliko dute jokamolde moduan, zazpi txandatan banatuta. Sariak maila bitan banatuko dituzte: 12 urtetik beherakoak eta adin horretatik gorakoak. Txapelketaren amaieran luntxa egongo da bertaratzen direnentzat.

Izen-ematea gaur amaituko da, 20:00etan. Helbide elektronikoa bidez ([elorrio@zaldibaltza.com](mailto:elorrio@zaldibaltza.com)) edo telefonoz (685 752 717) egin daiteke.

# Guraso elkartearen ekimenez, eskalada horma berria inauguratu dute Durangoko Landako eskolan

Itziar Zabalak eta Eric Lopezek diseinatu dute egitura berria; bata zein bestea goi mailako eskalatzaileak dira



Eguenean inauguratu zuten eskalada horma.

## ESKALADA • JOSEBA DERTEANO

Landako herri eskolan eskalada horma berria inauguratu zuten atzo. Frontoiko pareta baten kanpoko aldean jarri dute azpiegitura berria.

Landako eskolako 'Jolastokia denen eremua' izeneko egitasmoaren barruan gurasoen elkarteak aurrera eramane duen proiektua da, zuzendaritzaren laguntzagaz.

Eskalada hormako ibilbi-deak diseinatzerako orduan, goi

mailako eskalatzaile biren laguntza izan dute: Itziar Zabala dimoztarrarena eta Eric Lopez madrildarra. Zabala Espainiako eskalada txapelkun izandakoa da, beste lorpen batzuen artean. Lopezek ere ibilbide oparoa du eta telebistako Ninja Warrior programan erakutsi ahal izan ditu bere dohainak aurretan. Saio horretako bigarren deboraldiko txapelkun geratu zen maiatzean.

## Denentzako eskalada horma

Landako eskolako orduetan bertako ikasleek erabili ahal izango dute. Baina eskolaz kanpoko orduetan ere zabalik egoten da eskolako jolastokia eta, beraz, ordu horietan edonork erabili ahal izango du eskalada horma.

**'Jolastokia denen eremua' izeneko egitasmoaren barruan aurrera eramane den egitasmoa da**

## Jokaldia

Garazi Sampedro Arando  
Mendi lasterketak



## Zaborra

Basque Ultra Trail Series lasterketen antolatzaile bati irratian entzun nion beraien lasterketen arauetako bat lasterkari bakoitzaren zaborra markatuta eramatea izan zela. Hau da, probako lasterkariak eraman ohi dituzten gel edo bestelako jakien plastikozko ontzitxoak beraien dortsal zenbakiarekin identifikatuta eramatea, lasterketa ostean lurrean botata aurkituz gero, lasterkaria zigorrezko.

Gainera, parte-hartzaile bakoitzari hondakinak gordetzeko zakutxo bat eman eta hurrengo kontrol puntuko zaborrontzietan uzteko agindua eman zioten. Horrekin batera, anoa puntuetan norberaren edalontzia edo botila bete beharko dute edariz, ez baita aparteko edalontzirik emango. Ni erabat ados nago neurri horiek hartzearekin, are gehiago ultra distantzietan eraman ohi dituzten janari eta edari kopuruak kontuan hartzen baditugu.

Mendi lasterketen ospea handitzen doala gauza jakina da eta kirol batek jarraitzaile asko pilatzen dituenean, araudiak beharrezkoak dira. Uste dut mendizaleon ezaugarri komuna dela ingurugiroa zaintzeko nahia. Baina, tamalez, badira gutxi batzuk (gutxiengoa direla pentsatuz lasaiago nago), ingurumena ez zaiena gehiegi axola. Mendian edozein egunetan botata aurkitu izan ditut gelen plastikozko edukiontzia. Beharbada pentsatuko dute jolas-parke bat dela eta egunaren amaieran garbitzaileak aritzen direla dena jasotzen?

Mendiaz gozatzen dugun guztiok errespetua zor diogu hainbeste ematen digun inguru horri.

## Asteko kirolaria

### “Aurten ez nabil hainbeste probatan parte hartzen eta ez nuen irabazterik espero”

**Gaizka Juaristi abadiñarrak Nafarroako Irisarri Bike Enduro Txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan. Abilidadea eta abiadura uztartzen dituen modalitatean, lau jaitsiera egin zituen bizikletagaz, eta denbora denak batuta bera izan zen azkarrena.**

**Enduro probak ez dira ezagunak inguru hauetan. Kontaiguzuz, zelakoak dira?**

Bizikletagaz jaitsierak egin behar dira. Irisarri lasterketaren kasuan, lau jaitsiera zeuden. Dena ez da abiadura kontua. Bidean saltoak eta antzerakoak egin behar dira. Horrez gainera, parte-hartzaile bakoitzak denbora tarte jakin bat du jaitsiera bat amaitzen

den tokitik hurrengoa hasten den tokira igotzeko. Lortu ezik penalizazioak egoten dira. Beraz, ondo jaitea bezain garrantzitsua da hasiera puntura agindutako orduan heltzea.

**Irabaztea espero zenuen?**

Ez nuen espero eta oso pozik nago. Aurten ez nabil hainbeste probatan parte hartzen. Gehiago aukeratzen ditut. Espainiako Openean ez dut parte hartu, esaterako. Beraz, aurreneko bosten artean ibiltzea nuen helburu, eta irabaztea sorpresa izan zen.

**Zure eta Victor Saenz bigarren sailkatuaren artean segundo bakarreko aldea egon zen. Non egon zen garai-penaren gakoa?**

Amaiera estua izan zen, bai. Sarritan Enduro probak horrelakoak izaten dira. Batzuetan, dezima gutxiren aldeaz amaitzen dira jaitsierak. Irisarrikoaren kasuan, ni arinagoa izan nintzen tarte batzuetan eta bera bestetan. Esaterako, hirugarren jaitsiera zoru bustian egin nuen, ni irten orduko euria egin zuen eta. Saenz jaitsi zenean, ostera, zorua siku zegoen eta hor aldetxo atera zidan. Azkenean, segundo baten barruan sartu ginen eta estu egon zen garaipena. Emozionantea izan zen.

**Urte askoan zabilza Enduro probatan parte hartzen?**

2008 inguruan txapelketak anto-



GAIZKA JUARISTI ARRINDA

Abadiño, 1980

latzen hasi zirenetik hona. Baina bizikletan betidanik nabil; orain 20 bat urte hasi nintzen. Bizikleta mundua asko gustatzen zait.

**Non entrenatzen zara? Durangaldean badago horretarako modurik?**

Batez ere Urkiola inguruan ibiltzen naiz. Han jaitsiera moduko batzuk egin ditugu. Jaitsiera naturalak dira, lurreko gorabeherak aprobetxatuz egindakoak. Oiz inguruan ere ibiltzen naiz, eta beste toki batzuetan ere bai, baina, batez ere, Urkiola aldean entrenatzen naiz.

R.P.S. 214/06  
A. Urreta podologa

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak  
iñaki uribe

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
Delicatessena - Ardogia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

94 621 79 02

anboto komunikabideak



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmodurangesado.com](http://www.inmodurangesado.com)  
inmodurangesado@gmail.com



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)

[www.inmodurangesado.com](http://www.inmodurangesado.com)

**DURANGO** 4 logela  
100 m<sup>2</sup>

**TXIBITENA.** 4 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela handia, terraza, ganagara eta garajea.  
**209.000€**

**DURANGO** 5 logela  
2 komun

**TABIRA:** 5logela, 2 bainugela, sukalde hancia, egongela handia, 3 terraza eta parking komunitarioa.  
**165.000€**

**DURANGO** 3 logela  
1 komun

**ANBOTO:** Pisu altua, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela. Hegoaldera begira.  
**180.000€**

**DURANGO** 2 logela  
1 komun

**MADALENA:** 2 logeladun atikoa, sukalde handia, denpentsa, egongela, 2 terraza handi, ikuspegi politak eta ganbara.  
**170.000€**

**DURANGO** 3 logela  
90 m<sup>2</sup>

**ANTSO ESTEGIZ:** 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin eta igogailua.  
**138.000€**

**DURANGO** 2 logela  
1 komun

**ERDIGUNEAN:** 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela, igogailua, bizitzen sartzeko prest.  
**130.000€**

**//ETXEBIZITZAK ALOKAIURUAN**  
**DURANGO.** Bi, eta lau logelako etxeak alokairuan. Hilean **750€**-tik hasita.

**//ETXEBIZITZAK SALGAI**  
**DURANGO.** Eraikin berria. Logela hiruko, azken bi etxebizitzak salgai. **195.000.-€** hasita.

**DURANGO.** Murueta Torre kalean. Pisu berria, hiru Logelakoa, komun bi, sukaldea eskegitokiagaz, egongela, Garaje eta trasteroa  
**BERRIZ.** Hiru logelako pisua. komuna eta egongela ganbara ere badu. oso eguzkitzua eta merkea.

**DURANGO.** Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbarekin.

**IURRETA.** Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.

**DURANGO.** Montebideo kalean, logela biko pisua, bi komun, eskatza, terraza, garaje eta trasteroa, berria.

**DURANGO.** Hegoalde kalean, izugarriko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.

**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

**//LURSAILAK SALGAI**  
**ABADIÑO.** 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA.** Txalet bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalarekin.

**//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI**  
**MAÑARIA.** Izugarriko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.

**ELORRIO.** Aldape auzoa. Baserria berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€

**ATXONDO.** Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ.** Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. la berria, estreinatze.

**BERRIZ.** Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

**//BULEGOAK ALOKAIURUAN**  
**ABADIÑO.** 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

**LOKALAK ALOKAIURUAN**  
Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

**//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI**  
**MATIENA.** 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

[www.inmodurangesado.com](http://www.inmodurangesado.com)

**DURANGO** 4 logela  
120 m<sup>2</sup>

**ANDRA MARI:** 120 m2, 4 logela, egongela, egongela txikia, sukaldea eta bainugela. Komunitateko ganbara eta igogailua. Berriztatze.  
**230.000€**

**DURANGO** 5 logela  
2 komun  
116 m<sup>2</sup>

**TABIRA:** 116m2 eraikiak. 5 logela, 2 horma-armairuekin, egongela, sukaldea jarrita, despentsa, 2 bainugela, 3 balkoi. Berriztatze.  
**165.000€**

**DURANGO** 3 logela  
79 m<sup>2</sup>

**DURANGO:** 79 m2, 3 logela, egongela, hall-a, sukaldea jarrita, bainugela (beriztatua) eta balkoia. Altzariz hornitua. Bizitzera sartzeko prest.  
**139.000€**

**DURANGO** 3 logela  
111 m<sup>2</sup>

**KALEBARRIA:** 68 m2, 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Lehioak aldatuta eta beroagailua gas naturalarekin. C.E.E.F.  
**110.000€**

**ELORRIO** 4 logela  
123,6 m<sup>2</sup>

**ERDIGUNEAN:** Hall-a, egongela (beheko suarekin), sukaldea jarrita, bainugela eta 4 logela. Harrizko etxe- aurrea eta estruktura mixta.  
**110.000€**

**DURANGO** 3 logela  
107 m<sup>2</sup>

**LOKALA:** 107 m2 eraikiak berriztatze. Edozein negoziaroko paregabea, etxebizitza eraikitze baimena.  
**90.000€**

**//DURANGO**  
**ALLUITZ KALEA** 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **295.000 € / E.E.Z =E**  
**ANDRA MARI** 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua. LEHEN 250.000€ eta **ORAIN 230.000€ / E.E.Z =F**  
**ANBROSIO MEABE** 3 logela, egongela, sukaldea balkoiagaz, bainugela 2, igogailua, kamarotea eta garaje itxia. **270.000/E.E.Z=F**  
**ASKATASUN ETORBIDEA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000/E.E.Z=F**  
**BARRENKALEA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. **126.300 € / E.E.Z= G**  
**ERRETTENTXU** 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. LEHEN 210.000 € **ORAIN 190.000€ / E.E.Z=E**  
**ERRETTENTXU** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. **205.000€ /E.E.Z=E**  
**EZKURDI** 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. 321.500 € / E.E.Z=F  
**KOMENTUKALE** Logela 1, sukalde-egongela, bainugela, ganbara eta igogailua. **186.000/E.E.Z=F**  
**KURUTZIAGA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **92.000 € / E.E.Z Bidean**  
**LANDAKO ETORBIDEA** 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi, igogailua eta garajea. LEHEN 267.800 € **ORAIN 255.000€ / E.E.Z=E**  
**MIKELDI** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ **ORAIN 260.000 € / E.E.Z= E**  
**MONTEVIDEO** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta, igogailua. **219.000€ E.E.Z= F**  
**MURUETA TORRE** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **288.000 € / E.E.Z=E**  
**MURUETA-TORRE** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **290.000 € / E.E.Z=E**  
**PLATERUEN PLAZA** 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. LEHEN 275.000 € / **ORAIN 260.000 € / E.E.Z=E**  
**ZEHARKALE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / **ORAIN 130.000 € / E.E.Z = E**  
**ZUMALAKARREGI** 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000€ /E.E.Z=E**

**//LURZORU ERAIKIGARRIA**  
**SANTIKURUTZ KALEA**Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600m2ko lur-sorua. **640.000€**  
**//ABADIÑO**  
**ARLOZABAL** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z Bidean**  
**ARLOZABAL** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **175.000 € / E.E.Z=E**  
**ZELETABE** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **309.000€ E.E.Z= F**

**//BERRIZ**  
**ANDIKONA AUZOA** Berreraikitze baserria, **460.000€**  
**BERRIZBEITIA KALEA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000€ /E.E.Z=F**  
**ELIZONDO AUZOA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. **142.000 € / E.E.Z= G**  
**OLAKUETA PLAZA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 2 balkoi. **135.000 € / E.E.Z= G**  
**BERRIZBEITIA** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta office **230.000 € / E.E.Z= Bidean**  
**BILBO ETORBIDEA** 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 komun eta balkoia **195.000€ / E.E.E=E**

**//ELORRIO**  
**ELIZBURU KALEA** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. LEHEN 189.000 € / **ORAIN 179.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.  
**//IURRETA**  
**ZUBIAURRE KALEA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **100.000/E.E.Z=E**  
**AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, terraza, igogailua ganbara eta garajea. **276.000 € / E.E.Z= E**

**//BERRIAK DURANGO**  
**SASIKOA** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 komun, ganbara eta garaje itxia **259.000 € / E.E.E=E**  
**IURRETA**  
**FAUSTE** Baserria lurzorua, **220.000€ / E.E.Z=G**  
**//MANARIA**  
**EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara eta txokoa **180.000€ / E.E.E=Bidean**  
**//OTXANDIO**  
**ARTEKALE** 2 logela, sukaldea, office, egongela, bainugela, balkoia. **75.000€ / E.E.E=E**  
**GOMILAZ AUZOA** Baserria lurzorua, **350.000€**

**//ZALDIBAR**  
**ZALDUA ELIZATEKO PLAZA** 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta trastelekua **150.000€ / E.E.Z=G**

HAUXE BAI JENEROA!

EGUNEAN  
 $11 \times 11 \times 11 = 365^{11}$   
EGUN LAGUN ALDIZ

EUSKARALDIAREN  
LELOA?

ZULO  
BELTZETIK  
ATERATZEKO  
FORMULA

@garbineubeda

## Zorion Agurrak


ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA




**GOZATU  
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozaturango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Garazi (741. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Azaroaren 25ean **Ametzek** 3 urte egingo ditu. Zorionak Alluitz anaiaren eta aita-amen partez. Jarraitu biok amatxoren txakurtxoak zaintzen eta maitatzen!



Zorionak, **Elixabete**, zeure zazpigarren urtebetetzean etxeko guztien partez. Ondo pasa eta gozatu zure eguna familia eta lagunekin. Besarkada eta musu handi bat.




Zorionak, **Unax**! 5 urte handi! Mosu potolo bat etxeko danon partez.



Zorionak, **Yosu**, ondo pasa zure egunean. Beti bezain guapo jarraitu.



Martitzenien amatxok urteak bete zituen. Zorionak eta musu handi bat Inhar, Eider eta Ibonen partez.




Zorionak, **Aner**! Azaroaren 22an hiru urte bete zenituen. Zorionak etxeko danon partez eta batez be Aimarren partez.



Zorionak, neskatila! Kandelak pastel gainean ipini, putz egin eta itzali. Ondo pasa zure egunean. Musu bi Durangoko etxeko guztion partez.




Zorionak, **June**, zure 12. urtebetetzean. Oso harro gauz zutaz eta asko maitte zaittugu. Ondo ondo pasau!



# Zaldibarko

## XX Neguko azoka



# AZAROAK 25

## Euskal Herria etorbidean

### EGITARAUA

10:00

Epaimahaiaren erabakia

11:00

Azoka zabalduko da  
jendearentzat

12:00

Sagardoa eta ezta zelan egiten  
diren ikusteko aukera  
Joxe Antonio Agirre parkean

Antolatzailea



Laguntzailea



## “Ilusioz eta gogo handiz hasi nintzen euskara ikasten, eta prozesu oso naturala izan da”

Arrazolako baserri batean bizi da Gabi Romero, beste lau lagunekin. Ekonomia zirkularrean oinarritutako Sasipeko Uztak proiektuaren barruan ogi ekologikoa egiten du

**AKUILUA** • AITZIBER BASAURI

**Bizitza modu oso intentsoan bizi duela dio Arrazolan bizi den madrildarrak. Ortuan, oiloak eta ahuntzak hazten, sagastiak lantzen... lurragaz lotutako hainbat proiektutan aritu da. Orain, ogi ekologikoa egiten hasi da. Ahal dituen ordu guztiak kentzen dizkio egunari eskalatzeraz joateko, eta gaur hasi den Euskaraldian ahobizi izango da.**

**Madriletik Arrazolako baserri baterako saltoa handia da. Nolatan aldaketa?**

Ez zait horrelako salto handia iruditu. Lurrarekiko lotura handia izan dut beti. Majadahondan (Madril) bizi nintzen eta 15 urtegaraz komunitate-ortu bat lantzen hasi ginen taldetxo bat. Ia 18 urtegaraz etorri nintzen, Bilbora lehenengo. Gero, Arrazolara. Oso pozik nago hemen. Aurretik Kalifornian (AEB) bospasei hilabete egin nituen, osaba bategaz. Amaren partetik familia migratzailea dut; sustrai euskaldunak ere bai.

**Azaldu sustrai euskaldunen kontu hori.**

Amama Getxokoa nuen; hori izan zen nire lehen berba euskaraz. Ez zekien euskaraz, baina amama deitu diogu beti. Nikaraguara emigratu zuen aititagaz. Aitita Alemaniatik etorri zen Euskal Herrira, Labe Garaietan lan egitera. Nire ama eta osabak Nikaraguan jaio ziren. Gerora, ama Madrileraz joan zen, bere aitita zaintzera. Amaren aitita txinatarra zen, Nikaraguara emigratutakoa.

**Eta zu Madriletik Arrazolara etorri zara.**

Kaliforniatik Madrileraz bueltatzean ez nuen neure burua gurasoenean ikusten, eta asko pentsatu barik Bilbora etorri nintzen. Euskal Herriak beti erakarri nau, amamagatik, eta txikitatik erreferente politiko moduan izan dudalako ere bai. Urtebete egin nuen Bilbon, hainbat proiektutan. Orduan, Nafarroako

Lakabe proiektuagaz ere hartu-eman estua nuen, baina, azkenean, Bilbotik Erandiora joan nintzen bikotekideagaz. Ortua eta ardi batzuk izan nituen.

**Gero etorri zinen Arrazolara?**

Bai. Baserri bat dugu alokatuta bost laguneren artean. Euskal Herrira etorri nintzenetik, beti etorri naiz Atxartera, eskalatzeraz. Hasieratik izan dut lotura inguru honeguz, eta gogoa nuen herri euskaldun baten bizitzeko eta euskara ikasteko.

**Euskal Herrira etorrita, argi izan duzu euskaraz ikasi gura zenuela?**

Bai. Bilbon saiatu nintzen apur bat. Baina zaila egin zitzaidan euskal hiztunak aurkitzea. Gerora, Elorriko AEKn ibili nintzen bi hilabetez. Baina, utzi egin nuen, denbora faltagatik.

**Zaila egin zaizu ikastea?**

Ez. Ilusioz eta gogoz hasi nintzen ikasten, eta prozesu oso naturala izan da. Euskal Herrian geratzeko asmoa dut eta hizkuntza ikasteari naturala deritzot. Hau dut etxea orain; Madriren familia eta lagunak ditut, baina ezerk ez nau lotzen han. Oso gustura bizi naiz hemen.

**Euskaraldian parte hartuko duzu?**

Bai, ahobizi izango naiz. Garrantzitsua da herrian euskara bultzatzea. Hamaika egunez barik 365 egunez egin beharko genukeen ariketa da. Herri bakoitzean bizi den egoera aztertzeke era ere bada Euskaraldia.

**Ogi ekologikoa egiten lan egiten duzu.**

**Zeure burua honetan ikusten zenuen?** Beti gustatu zait ore artean ibiltzea. Etxean ere egiten dut ogia, enpana-

...dak... Hilabete batzuk dira Sasipeko Uztak proiektura batu nintzela eta oso pozik nago. Ametsa baliatuz bezala, lantegia Atxarte alboan dago-eta. Ekonomia zirkularrean oinarritutako proiektua da: okindegia da ardatz, baina ortua oilotegia eta basoa ditut.

gu. Basoa garbituz laborerako egurra lortzen dugu, eta saltzen ez diren arrautzak gozogintzarako darabil-tzagu. Ortuan sasoiako produktuak landuko ditugu, eskaintza egiteko. Horretan inbertitu gura dut energia eta denbora, eta soldata duina lortu. Autoenpleguan sinesten dut.

**Kontsumo taldeekin ari zarete. Sale-rosketa zuzena sustatu behar da?**

Bai. Eskubartz proiektuagaz hasi gara lanean. Durangon eta Bergaran dituzte kontsumo

taldeak eta euren bitartez saltzen dugu ogia.

Apatan, Abadiñon, Elorri... ere hasi gara taldeak sortu guran. Elikadura burujabea dago oinarrian. Jaten dugunaz, nondik datoren... horretaz jabetu behar dugu. Gainera, herrian antzinako ogi-bideak berreskuratzeko bidea zabaldu daiteke.

### Lau-hortza

Mikel Uriguena Ruiz  
Irakaslea



### Fuck off

Berri onak datozkigu Alemani aldetik. Fuck Off Google herri mugimenduaren protesta eta ekintzen ondorioz, bertan behera geratu da Google-ek Berlingo Kreuzberg auzoan aurreikusitako Teknologia Kanpusaren proiektua. Multinazional estatubatuarak aurrera egin nahi du egitasmoarekin, baina, momentuz, buelta eman eta ekimen sozialak bultzatuko ditu esparru horretan. Burua zuritzearen besterik ez bada ere. Ongietoririk egiten ez diotela ikusteak bere estrategia aldatzera eraman du.

Eta zer harreman ote dute ba Google-ek eta Berlinek gurekin? Azkeneko honetan, hemen ere hainbat plataforma sortu dira zenbait arazori aurre egiteko asmoz. Durangaldeko lagun asko elkartu dira taldetan egoerak salatu eta neurriak eskatzeko. Alde batetik, daukatenarekin konformatzen ez direlako. Bestetik, gizartearen eraldaketa prozesuaren parte-hartzaile aktibo izan nahi dutelako. Eta garrantzitsuenak, aukerak egon badaudela sinetsita daudelako.

Baita zu ere, irakurtzen ari zaren hori, plataforma edo mugimendu horietako baten parte izan zaitezke. Ateak zabalik dituzu. Zerbait aldatu behar dela uste baduzu, ez zaitez etxean geratu. Inork ez du esan erraza denik. Mugitzeagatik bakarrik ez da gertatuko, bidea luzea dela argi dago. Hala ere, ez ezazu pentsatu ezer ezin daitekeen egin. Berlindarrek ere Google-en aurrean aukera gutxi zituztela pentsatuko zuten, ziur baietz. Baina, esamoldeak dioten bezala, bada-kizu, ezina ekinez egina.

**Gabi Romero Quant**

Arrazolan bizi da eta ogi ekologikoa egiten du  
**Madril | 1995**



## Lekuan lekuko egutegia

**2019**  
Durangaldeko egutegia

**ABADIÑO** Petite / Hezgarri / Abarketeruena  
**ATXONDO** Kiosko Atxondo  
**BERRIZ** Fonda  
**DURANGO** Hitz Liburudenda  
**ELORRIO** Ilargi

**GARAI** Herriko Taberna  
**IURRETA** Urki  
**IZURTZA** Herriko Taberna  
**MALLABIA** Bastida Taberna

**OTXANDIO** Danoena Taberna  
**ZALDIBAR** Imendia  
**ZORNOTZA** Ayerdi paper-denda

**anboto**  
komunikabideak



Anboto  
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak



**2€**